

# Arrasate

P R E S S

1996ko  
Urriak 11  
335. zenb.

**IRITZIA**

**Piter Encinas**

**ELKARRIZKETA**

**Angelo Cacciola**

**KIROLAK**

**Eskubaloï taldeko  
aurkezpena**

**BERRIAK**

**HBren mozioa  
aztertzeke plenoa**

**FUTBITOA**

**Jokatu da lehen  
ihardunaldia  
Zaldibarren**

**Udalaitzeko  
gurutzea  
25 urte zutik**





# AMAGARA

Erdiko Kale, 54 beheha • Tfnoa: 79 09 09 • ARRASATE

**5.**  
**URTEURRENA**  
**100.000 PTA.KO**  
**BALIOA DUEN**  
**TRATAMENDU**  
**TXARTEL BAT**  
**ZOKETAZEN**  
**DUGU.**

Urriaren 12tik abenduaren 30ra arte, egiten duzun zerbitzu bakoitzeko, 100.000 ptako. balioa duen aurpegiko edo gorputzeko tratamendu txartel baten zozketan hartuko duzu parte. Dei egizu!! (Zozketa abenduaren 30ean)



**AURPEGIKOA**

**AURPEGIKO TRATAMENDUAK**  
Hidratazioa/Nutrizioa  
Tonifikazioa/Zimurren aurkakoa  
Acné-a/Glikoliko estetikoa



**GORPUTZEKOA**

**GORPUTZEKO TRATAMENDUAK**  
Drenaje linfatikoa/Bernen astuntasuna  
Zelulitia/Tonifikazioa/Lokatz terapia  
Stretching-a/Masaia reflexogenoa



**APARATOLOGIA**

Elektroterapia estetikoan azken aurrerapenak  
Depilazio elektrikoa (betirakoa)  
Blenz sistema (15 urteko esperientzia).  
Solariuma. Fototipoen azterketa pertsonalizatua (dutxa zerbitzu osoa).



**BAINUNTZIA**

**Hidroterapia itsasoko lokatzekin eta oinarrizko olioekin.**

## **MEDIKUNTZA ESTETIKO ETA PREBENTIBOAK**

- Terapia mediko-estetikoak (mesoterapia homeopatikoa).
- Azido glikoliko medikoa (zimurrak/acné-a)
- Colagenozko betegarria.
- Dieta pertsonalizatua.
- Tabakoaren aurkako terapia

# Euskadi/Espainia/ Europa

**E**z dira gai politikoez sano hitzegiteko garai onenak. Epe motzeko interes txikieta gehiegi makurtzen dira iritzi eta jarrerak, eta oso zaila bihurtzen da etorkizuna nolakoa izango dugun ausnartzea. Arinkeria handiz erabiltzen den gai bat jarriko dut adibide, hain zuzen Europaren egituratzek gurea bezalako herrien nazionalismoan izango omen duen eragin aurkakoa.

Nigan sentitzen dudana aberrizaletasuna ez da batere ideologikoa, besteen ukazioak eragindakoa baizik. Hau da, ukazioa desagertzearekin batera seguruenik arindu edo ezabatuko litzatekeen horietakoa. Hori bai, gizartearen antolakuntzarako autojestiozalea naiz, hiritarrangandik hurbileneko egituren lehentasunaren aldekoa, gorenakoak desagertarazi edo ahalik eta gehien mehetzea dut gogoko. Esan dezadan hau, ondorengo hobeto uler dadin.

Europa zabalean herri historikoen egituratzeko politikoa etorkizunik ez duela esatea errazkeria interesatua da, ez du fundamenturik. Historiak erakusten du Europar gaur dauden estatuak oso gazteak direla, batzuk apenas 100 urte baino gehiago duten. Eta estatuok nagusiki merkatu gisa sortu zirela, beren baitan dituzten herriak txikiak geratu zirenean. Horrek ekarri zuen herri historien galbidea, eta geroago herriotan nazionalismoaren sorrera.

Orain sortzen ari den Europa hau ere merkatu gisa hasi zen, bere baitako estatuak txikiak geratu zirenean.

Lehenengotan, behintzat, Europak hartuko duen agintea estatuei kenduko die, gure arrantzale edo nekazariei mugak ez dizkie dagoeneko Madrilek jartzen, Bruselak baizik. Beraz, lehen fase batean estatuak ahulduko ditu Europak, eta ez herri historikoak.

Eta geroko ere antzeko zerbait pentsa daiteke. Alde batetik, nazionalismoa indarrean duten herriek Europa aukera moduan erabili nahiko dutelako, estatuaren aurka pintzarena egiteko. Gogoratu bestela Europako banderaren hainbatgarren izarra izatea amesten duten nazionalismoak, gurea barne. Baina baita ere, egitura berriak agintearen birmoldaketa ekarriko duelako, administrazioaren mailak birpentsatzea, egokitasun edo efikaziaren bila. Eta hor agertu daitezke autojestioaren abantailak, beheko mailak indartzeko motiboak eta, finean, lehengo herrien iraupenerako arrazoi objektiboak.

Badakit hau ez dela mekanikoki edo bapatean etorriko, ez eta gertatuko denik ere, baina bilakaera hau posible da, eta logikaduna ere bai. Eta gauzak horrela gertatuko balira, ez luke zentzu haundirik gaurko borroka txikietan indarra galtzen jarraitzeak, nazionalismo bakoitza besteei gailendu nahiean.

Hobe genuke etorkizunaren hildo nagusiak jarrera sanos aztertzea. Gaur egungo absolutuak -hil ala bizikoak- zalantzan jartzen lagunduko liguke eta seguruena orduan libreagoak ginatete geroa oinarri sendoz eraikitzeko.


**MIKEL IRIZAR**

## • ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Bernardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarra, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Udalaitez zaleak.

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

## IBARRA Garajea S.L.



**EBRO  
NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

# Memesa

## 79 42 22



**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

---



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

.....  
**Alkatearen atxiloketa dela eta**

**I**railaren 27an Gudari Eguna zela eta modu baketsuan manifestazioa burutzen ari zela, Ertzaintzak, errepidean aurrez aurre jarrita, geldiarazi egin zuen manifestazioaren martxa. Alkatea ertzainengana hurreratu zen, Arrasateko alkatea zela adierazteko eta manifestazioa modu libre eta baketsuan burutzeko eskubidea aldarrikatzeko. Ertzaintzak, ordea, inolako azalpenik eman gabe, manifestazioa pelotazoka sakabanatu eta Xabier Zubizarreta alkatea, arrastaka furgoneta baten sartu eta Ertzaindegira eraman zuten atxiloturik.

Gutun honen bidez, Arrasateko Alkatearen atxiloketa eta Ertzaintzaren jokaera salatu nahi ditu Herri Batasunak.

Julio Arevalo jauna Arrasateko Ertzaindegiko arduraduna denetik, Ertzaintzaren jokaera errepresiboa areagotzen ari da herrian. Ugarriak dira azken hilabete hauetan adierazpen eta manifestazio eskubideen aurka Ertzaintzak burutu dituen eraso bortitzak. Alkatearen atxiloketa testinguru honetan sartu behar da eta Ertzaintzak areagotu duen jarrera errepresiboaren urrats grabe bat besterik ez da. Halako erasoekin, argi asko nabaritzen denez, tentsioa eta istiluak ugaltu egin dira herrian. Arevalo jauna, herri honek ez du errepresio gehiago behar, herri honek eta hemengo herritarrek dagozkien eta ukatzen zaizkien eskubideen errekonozimendua behar dituzte. Errepresioaren bidez herri hau "normaldu" nahi dutenek, jakin dezatela, hala ere jarrerarekin bizi dugun egoera gatazkatsua "konpondu" beharrean, areago

tzea besterik ez dutela lortzen. Ertzaintza = Herri zaintza?

Alkatea atxilotzeko "zenbait ertzain iraintzea eta erasotzea" izan omen da arrazoia. Hauexek bai gezurrezko arrazoi petralak. Ez gara luzatuko Alkatearen defentsan, izan ere politikoki berarekin bat ez datozenek ere, argi ta garbi dute Xabier, besteak beste, pertsona zentzuduna, baketsua eta umila dela.

Alkateak, atxilotu zutela, salatu egin du Auzitegian eta Herri Batasunak, bestalde, merezi duen erantzun politikoa emango dio eraso honi.

**ARRASATEKO HERRI BATASUNA**

.....  
**Euskal presoak Euskal Herrira**

**L**angile Komisiotako ezker sindikaletik, sindikatuko ordezkari guztiei deialdi bat luzatzen diegu, azken egunotan Senideak enpresetako komite, ordezkari eta gizarte konseiluari egiten ari den proposamenarekin bat egin eta beraien babesa adieraz dezaten honako arazo hauei bukaera eman ahal izateko:

- Giza eskubideen ez betetzea espetxeetan.
- Senideei ezarritako zigorra milaka kilometro bete behar izatea presoak bisitatu ahal izateko.
- Guzti honek dakarren gizarte krispazio eta amorrua.

**LANGILE KOMISIOTAKO EZKER SINDIKALA**

.....  
**Presoak Herrira! Elkartasuna!**

**D**ispertsioa, erasoak, lekualdaketa bat bestea erantzetik, isolamendu arbitrarioak, eguneroko mehatxuak, heriotzarenak barne, babes-eza juridikoa, gure preso politikoak jasaten ari diren errepresioaren adierazpenetako batzuk dira, eta hauen aurrean Euskal Langile Klasea ezin daiteke mutu geratu.

Behin eta berriz "bere" legeriaren aurka doaz, legeri hori aplikatuta egun kartzeletan dauden ehun bat euskal preso politikok aske egon beharko lukete eta, bai gaisotasun sendaezinak dituztelako, bai zigorraren 3/4ak beteta edukitzeagatik. Bestetik, legeak esaten duenari jarraituz, zigorra norberak bere jaioterrian bete beharko luke, kartzelan dagoenak familia eta gizarte-ingurunearekiko harremana gal dezan ekiditeko. Hauek denak, legearen aurkako neurri errepresiboak ditugu, hainbat erakunde ofizial nahiz nazioartekoak aitortu duten moduan.

Dispertsioa, presoak lehenagotik ere legeak ezarritako zigorrari legez kanpoko den beste zigor bat eranstea da, eta honen bidez presoaren familia eta lagunak ere zigortzen dira (inolako zigorrik bete beharrik ez badute ere), ehundaka edota milaka kilometro ibili beharrean egoten baitira asteroko bisita laburrak burutu ahal izateko, zenbaitetan heriotza ere ekarri izan duten trafiko istripuen arriskua gehituz.

Hau horrela, guk LAB.ekook zer egin?

Bapresoaren inguruko erakundeek antolatutako ekintzei gure laguntza eskeiniz aparte, guri dagokigun lekuan, lan munduan, egoera horien aurka eta egoera honi lehenbailehen amaiera

eskatzuz langileri osoak parte hartu ahal izango duen entrepresetan itxialdiak bultzatuko ditugu urriaren 18tik 20ra bitartean; eta entrepresetan egin ezinean beste alternatiba batzuk topatzen ahaleginduko gara, gure asmoen berri datorren astean izango duzue-larik.

Garrantzitsua da itxialdi honek langile orori irekiak izatea, langile orok, kolorez gaindi, egoera injustu honi aurka egitea, jende oro afektatzen baitu egoera honek; eta era berean, eskakizun hau gizartearen gehiengo nabarmen baten exigentzia bihurtu delako.

**JENITZ ESKUALDEKO LAB**

.....  
**Txabolismo ofiziala?**

**H**ainbeste arazo artean, seguraski txabolena udal agendan lehen tokietan aurkitu daitekeena izango da.

Honi buruz, zerbait gautzen denean, benetan nabaritu eta eskertzen dela esan daiteke.

Arazoaren neurria eta konplexotasuna ikus ondoren, konponbidea astiro etorriko dela ulertzen da.

Hau dena aztertu eta gero Udala Santa Barbaran egiten ari dena ikusterakoan harrituta geratzekoa da: hegaztientzat txabola bat!

Nahiz eta animaliak libre ikustea gustatu, ulertzekoa da akaso babesleku bat behar dutela, baina mesedez... Erguin, San Josepe eta hainbat lekutan hau baino hobeto eginda ikus daitezke. Eta azkarrago gainera.

**JUAN JOSE ZABARTE**

# Aurten zenbat aldiz igo duzu Udalaitez?



**Toñi Morales**  
**Ikaslea**  
**(29 urte)**

Aurten ez naiz igo. Aurrez igota nago baina egia esan, oso gutxitan, bost bat alditan edo. Nahiko mendi gogorra iruditzen zait.



**David Regilon**  
**Langilea**  
**(18 urte)**

10 hilabete daramat Arrasaten bizitzen eta denbora horretan bi aldiz igo naiz Udalaitezera. Mendi polita iruditzen zait. Udalaraino erraz igotzen da baina hortik aurrerakoa gogorra da.



**Esteban Garai**  
**Jubilatua**  
**(59 urte)**

Aurten ez naiz igo hezurretatik gaixo nago eta. Bestela, urriaren 12 guztietan igo izan naiz, Udalaitez egunean.



**Puy Baños**  
**Langilea**  
**(36 urte)**

Leitzakoa naiz eta Arrasatera heldu berria naiz. Ez dut mendia ezagutzen eta ez dut Udalaitez buruz gauza handirik entzun.



**Gerardo Amozarrain**  
**Langilea**  
**(21 urte)**

Aurten ez naiz igo, denborarik ez dudalako eta agian nagikeriagatik ere. Bestela lau aldiz edo igo izan dut. Mendia polita iruditzen zait, batez ere Arrasate aldea. Bizkaikoa ez dut ondo ezagutzen.



**Bakarne Pagaldai**  
**Langilea**  
**(27 urte)**

Aurten ez naiz igo baina beste urte batzutan askotan igo naiz. Mendizaletasuna asko gustatzen zait eta Udalaitez ere, baina zaila da igotzeko, harri solte asko dago.



**Marcelino Amozarrain**  
**Langilea**  
**(39 urte)**

Aurten 12 bat aldiz igo naiz. Mendian ibiltzea asko gustatzen zait eta beste batzuetara ere joaten naiz. Dena den, Udalaitez da gehien gustatzen zaidana, akaso hurbiltasunagatik.



**Nuria Aldai**  
**Ikaslea**  
**(23 urte)**

Aurten ez naiz igo, iaz berriz bai eta hura izan zen igo nuen aldi bakarra. Atxalbaltarra naiz, beraz, Aretxabaletatik gertu dauden mendietara joaten naiz gehiago.

## APARTEKO MODA DESFILEA



Urriaren 12an, zapatua, arratsaldeko 7etan Bergarako JAM aretoan. 14 dendek hartzen dute parte, denak BEDELKAREko bazkide. Zatoz moda honetako berriena ikustera!

*GOROSTI*  
Jatetxea

Arimazuri Plaza • Tfnoa: 77 06 07 • ARRASATE

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialdia .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdia) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterongo liburategia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 11**  
 10ak arte: Irizar, Erguin.  
 Egunez eta gauzez: Cuellar, Bergara.

**Larunbata 12**  
 10ak arte: Amezua, Santamaina.  
 Egunez eta gauzez: Estella, Bergara.

**Igandea 13**  
 10ak arte: Ruiz, Maala.  
 Egunez eta gauzez: Estella, Bergara.

**Astelehena 14**  
 10ak arte: Morales, San Andres.  
 Egunez eta gauzez: Mozos, Bergara.

**Astearte 15**  
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.  
 Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara.

**Asteazkena 16**  
 Egunez eta gauzez: Español, Iturriotz.

**Osteguna 17**  
 Egunez eta gauzez: Corcuera, Musakola

**11 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 7etan eta 10etan.

• **ÑAKO GOÑIREN KONZERTUA ATERPEN**  
 Ñako Goñiren kontzertua Aterpe tabernan gaueko 10.30etan. Kontzertua dohainik izango da.

• **MANIFESTAZIOA**  
 Herri Batasunak deituta manifestazioa herriko plazan arratsaldeko 7.30etan adierazpen askatasunaren alde.

**12 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 5etan, 7.45etan eta 10.30etan.

• **UDALAITZ EGUNA**  
 Goizeko 8.30etan Udalaitez mendira igoera Udala auzotik. 11etan meza tontorrean, (euria eginez gero, Udako San Esteban elizan ospatuko da meza eguerdiko 12etan). 12.30etan Udala auzoan kalejira eta dantzak. Arratsaldeko 7etan Udalaitez gurutzea jarri zeneko 25. urteurrena ospatzeko jaialdia Amaia antzokian.

**13 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 5etan, 7.45etan eta 10.30etan.

• **NAFARROA OINEZ 96**  
 Herri kolore lemapean Nafarroa Oinez ospatuko da Etxarri Aranazen. AEDK autobus antolatu du bertara joateko. Irteera goizeko 8.30etan Zal dibartik



**DANTZA ETA TXALAPARTA IKASTAROAK**

**Euskal dantzen ikastaroa: 15 urtetik gorakoei zuzenduta. Urriaren 18tik abenduaren 13ra arte eman go da ostiralero arratsaldeko 7etatik 8.30etara. Prezioa: 1.000 pta. Txalaparta ikastaroa: Urriaren 26tik martxoaren 8ra. Larunbat goizetan 10etatik 11.15etara eta 11.15etatik 12.30etara. Prezioa: 2.000 pta. Dantza karibiarren ikastaroa: Salsa, merenge eta bachata. Azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Egunak astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara. Irakaslea: Julio Lantigua. Matrikula: 4.000 pta eta ikasle eta langabetuentzat 2.500 pta.**

**SQUASH IKASTAROA**

*Urriaren eta azaroaren astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 7etatik 8etara. 14 eta 20 urte arteko gazteentzat. Ikastaroa dohainik da, baldintza bakarra AUKEA-KO bazkide izatea. Izen ematea Arrasateko kiroldegian, plazak mugatuak izango dira.*

**KUALIFIKAZIOA TAPIZGINTZAN ETA ALTZARIEN ZAHARBERRITZE IKASTAROA**

Betebeharrak, emakumea izan, eskola graduatua eduki eta enplegu-eskatzailearen txartela. Iraupena 450 ordu 96ko urritik 97ko apirila arte. Astelehenetik ostiralera 4 ordu egunero arratsaldez. Izene-mateko epea irailaren 16tik 27ra. Antolatzailea Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentroa.

**14 ASTELEHENA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 7etan eta 10etan.

• **KERAMIKA IKASTAROAREN HASIERA**

Iraupena 50 ordu. Astelehen, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Matrikula 3.500 pta. Informazio gehiagorako deitu 79 87 95 zenbakira. Leintz Keramika eskolak antolatuta.

**15 ASTEARTEA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 7etan eta 10etan.

• **GERIATRIA IKASTAROAREN HASIERA**

Geriatría ikastaroaren hasiera. Astearte eta ostiraletan emango dira klaseak goizeko 9.30etatik arratsaldeko 4.30etara.

**16 ASTEAZKENA**

• **NUTRIZIOARI BURUZKO HITZALDIA**

Gaia: Nutrizioa Euskal Herrian. Nola jaten dugu eta zer egin hobeto jateko?. Hizlaria: Alberto Iturbe sendagilea. AEDn arratsaldeko 6etan. EKIN elkarteak antolatuta.

**17 OSTEGUNA**

• **ZINE KLUBA**  
 "Ed wood" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Prezioa 400 pta eta gazte txartelarekin 350 pta.

• **LIZARRA ELKARTEAREN HITZALDIA**

Marginatuen alde eta zehazki langabeziaren kontra lan egiten duen Lizarra elkarteak, hitzaldia antolatu du San Viator ikastolako areto nagusian arratsaldeko 7etan.

**AEK EGUNA DONAPALEUN**

*Urriaren 20an AEK eguna ospatuko da Iparraldeko Donapaleu herrian. Arrasateko AEKk autobusa antolatu du, beraz joateko interesa duzuenok izena eman urriaren 17a baino lehen, AEKren euskaltegian edo 77 03 69 zenbakian.*



**NUTRIZIOARI BURUZKO HITZALDIA EKINEK ANTOLATUTA**

Asteazkenean arratsaldeko 6etan nutrizioari buruzko hitzaldia AEDren lokalean. Nola jaten dugun eta zer egin hobeto jateko gaiaren inguruan mintzatuko da Alberto Iturbe sendagilea. EKIN elkarteak antolatuta.

**GERONTOLOGIA IKASTAROAK**

**Psikopatologia zahar-  
 rrengan ikastaroa:**  
 Hasiera urriaren 28tik azaroaren 7ra arte. **Ordutegia** arratsaldeko 5etatik 7.30etara. I.C.T.Eko Heziketa geletan, Loramendi 4. **Zaintzaindaria ikastaroa.** Azaroaren 18tik 28ra. **Ordutegia:** arratsaldeko 5etatik 7.30etara. Izen ematea ikastaroa hasi baino 5 egun lehenago. Informazio gehiagorako deitu 79 02 11 edo 77 05 00 zenbakietara. ICTEK antolatuta.

“Hamasei urtez adinekoei zerbitzua eskaini ondoren, Uribarriko jubilatuen etxea, Mondragoen, arriskuan dago, zuzendaritza batzordeko kideek mailetak egiten dituzten bitartean, urte bukaeran tokia uzteko gutxienez ilusioa ekarriko dutenei. Geldirik denbora gehiegi daraman gaia da hau, zentroko gaur egungo 600 bazkideengan eragina duena.

Paco Alvarez, Uribarriko Lehendakari Ordeari, bere lagunek borrokalaria sutsu bezala izendatzen dutenari, bere ahotsean nabaritzen zaio denboran zehar bildutako desilusia. “Eskuetan lokal berri batendako giltzak genituenean, desagertarazi zituzten”. Iazko hauteskunde ondorengo prozesoa ari da, alkatetzan botere traspasoak zailtasun ugari ekarri zituenean”.

1996ko udazkena

**VIVIR**  
*beza*

“... Nire ustez, eta ziur naiz horixe dela Herri Batasun gabiltzan guztion iritzia, berez da monarkia gobernu mota atzerakoa, desegokia eta antidemokratikoa. Ez da inondik ere bidezkoa pertsona batek estatuaren gidaritza bere esku izatea halakoren seme edo alaba izateagatik, herritarren nahiari bizkarra emanez eta demokraziaren arau guztiei muzin eginez.


Monarkia gobernu mota baliagarria dela diote batzuek, eta adibidetzat aipatzen dute Danimarka edo Holanda. Herrialde horietan demokrazia dagoenik ezin ukatu eta inguruotan baino dexente bikainagoa gainera. Nolanahi ere, ikusi besterik ez dago zeintzuk diren Danimarka edo Holandako errege-erreginen eginkizunak: hutsaren parekoak, testimonialak. Espainiako erregearen betekizunak ere protokolariorak direla, asko eta asko behintzat? Baliteke horrela izatea. Baina ezin dugu ahantzi erregea ez dela guk, herritarrok hautatua eta sobera diru kostatzen zaigula bere mantenua”.

Xabier Zubizarreta. 1996-10-6

**ARGIA**

## Noiz inauguratuko duzue egoitza berria?

**J**oan den igandean batzar orokorra egin genuen, eta bilera horretan egoitza abenduaren 1ean inauguratzea erabaki zen. Jendea egoitza berrian ekintzak egiten haste-ko desiratzen dago, baina denbora tarte bat behar dugu baimenak lortzeko. Gainera, hainbat agintari gonbidatu nahi dugu eta horiei denboraz eman behar diegu abisua. Manuel Chaves, Andaluziako lehendakaria eta Arantzeta lehendakaria gonbidatzeko asmoa dugu. Horrez gain, Andaluziako zenbait herritako alkateri eta inguruko herrietako alkate eta zinegotzietan ere egingo diegu gonbitea.



**Rafael Gomez**

*Al-Andaluseko lehendakaria*

Gutxi gorabehera 80 milioi kosta zaigu egoitza eraikitzea, eta erakundeetatik ez dugu inongo laguntzarik jaso. Andaluziako Juntak, Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak eta Udalak zoritxarrez ez digute pezetak bakar bat eman, baina eskatzen jarraituko dugu ea zertxobait jasotzen dugun. Eskatutako kredituari esker, 70 bazkidek jarri duten diruarekin eta aurreztuta genuenarekin lortu dugu dirua. Jakina, bazkideei dirua itzuliko diegu eta apurka-apurka zorra estalitz joango gara.

Egoitza berria egiten ari garela eta, azkenaldian handitu egin da bazkide kopurua. Orain 432 gara eta 500 izatera helduko garela uste dugu. Al-andalus elkarteak hala ere ez da andaluziarriandako bakarrik, egoitzaren ateak zabalik daude nahi duten guztiendako. Hemendik aurrera, gainera, ekintza gehiago antolatuko dugu.



**LASAGABASTER**

**ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



### Iñaki Irigoien arriskuz kanpo

Joan den asteartean istripua izan zuen Iñaki Irigoien arrasatearra arriskuz kanpo dago. Hasieran larri zegoela esan bazen ere, arrasatearraren osasun egoera ona da baina oraindik ospitalean jarraitzen du ingresatuta. Iñakik bere anaiarekin batera, Bixente Irigoienekin, izan zuen istripua eta anaia hil egin zen. Bi anaiak Arrasburuzala anaiak izeneko furgonetan zihoazen.

### Giro onean Maritxu Kajoi

Euria egin zuen arren, giro ona izan zen Maritxu Kajoi egunean. Jendea ez zen falta izan baina beti moduan iritzi desberdinak daude horren inguruan: batzuek inoiz baino jende gehiago egon zela diote, eta beste batzuek, beste urte batzuetan baino gutxiago egon zela. Aurten ere ez zen miraririk izan.

### Gas usaina

Astelehen gauean gas usaina zabaldu zen Lora-



### Euskalan prentsaurrean eta jendeaurrean aurkeztu

Euskararen erabilera lan-munduan bultzatzeko jaio den Euskalan elkartearen arduradunek, prentsaurrekoa eman zuten astelehenean. AEDko lehendakariak, Joseba Ezpeletak, Jose Ramon Elortzak, Euskalenerako lehendakariak eta Xabier Zubizarretak eman zuten prentsaurrekoa. Guztiak pozik azaldu ziren Euskalenerako jaiotzarekin, eta denbora galdu barik lanean hasteko asmoa dutela azpimarratu zuten. Lehendakariak 97rako jarri dituzten helburuen eta erabiliko duten estrategiaren berri eman zuten. Enpresetan Euskara Batzordeak eratuz hasiko du iharduna Euskalenera.

Asteazken arratsaldean batzar sortzailea egin zen Amaia Antzokian, eta horrela, elkarte ofizialki eratu-ta geratu da. Enpresa desberdinetatik joandako 200 lagun inguru hurbildu ziren Amaia ekitaldira.

mendi Kanean. Hasiera batean gas ihesa Torre Eguzkin zegoela uste bazen ere, ondoren handik zazpi metrora zegoela ikusi zuten

Gas Euskadiko langileek. Badaezpada suhiltzaileak etorri ziren eta ertzainek Torre Eguzki inguratu zuten inor pasa ez zedin.

### Hitzarmena sinatu Udalarekin

Asteazkenean Udalarekin hitzarmena sinatu zuten Arko, AED eta Txatxilipurdi elkarteek, eta horrela, Udalak diruz babestuko ditu elkarte horien ekintzak. Hiru elkarteek iazko kopuru bera jaso dute aurten ere, baina aurrera begira kopuru hori gehituko denaren esperantzarekin azaldu ziren. Elkartetako lehendakariak esan zuten, igoerarik ez izatea oztipoa da baina eskaintzen duten zerbitzuan hori igarri ez dadin ahaleginduko dira. Txatxilipurdik 17.800.000 pta. jaso ditu, Arkok 30.300.000 eta AEDk 7.400.000 pta. Hitzarmen hau urtero sinatzen da Udalarekin.

#### JAIOTZAK

- Jon Ormaetxea Mugerza. Irailaren 26an.
- Xavier Arregi Vilá. 30ean.

#### HILDAKOAK

- Jose Rojas Lirio. 28an. 67 urte.
- Jose Fidel Acebal Sagastume. 29an. 69 urte.
- Juana Moreno Millan. Urriaren 1ean. 66 urte.



## URONDO


### elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



Piter Encinas\*

## Elgea mendilerroko parke eolikoa

**A**rzalluz jaunak, Lemoizko zentral nuklearraegin edo bestela Euskadin azak ereitea beharrezkoa izango zela adierazi zuen. Lemoiz gabe, ez legoke aurrerapenik. Ekologistok, eraberritutako energia, batez ere, eolikoaren alde egiten genuen. Gauregun, enpresa elektrikoak eta Gasteizko gobernua, haizearen esplotazioan murgildurik daude.

Uztailean, Industri Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Elgea mendilerroa izendaturiko parke eolikoaren instalazioaren aurreproiektua Aitzkorri-Urbia inplikaturako udalei bidali zien, hau da, Eskoriatzako, Oñatiko eta Aretxabaletako udalerriei.

Euskadiko enpresa eolikak, zein Euskadiko Energiaren Erakundeak 39 metroko altuera, 3,6 metroko base diametroa eta 2 metro goian duten torre tubular tronkoko-ko 37 errota haizesortzaile jartzea proposatzen du. Errotoreek, 42 metroko diametroa hartzen duten hiru pala izango dituzte. 37 errotetatik; 7 Eskoriatzan eraikiko dira, eta beste 30ak Gipuzkoa eta Arabako mugan, hau da, Mugarriluzetik aurrera, Amuategi mendia inguruan: 16 Eskoriatzako mugan, 3 Aretxabaletakoan eta 11 Oñatin. Par-

kearen potentzia osoa, 22,2 MW-koa izango da, Euskadiko Energiaren Erakundeak energiaren salmenta dela eta, Iberdrola arduratuko den 20.000 etxebizitzentz hornikuntzarako nahikoa delarik. Parkearen aurrekontua 3.298.144.751 pta. da.

Iruñerrian 40 errotekin 1go parke eolikoa eraiki zuena Nafarroa izan zen, eta 2.000. urtea baino lehen beste 7 eraikitzeko proiektua dute. Euskadiko Eolikak, Euskal Komunitate Autonomoak, asko jota 12 parke eoliko eraiki ditza-kela dio, zeinetan 583.000 MW sortuko lirakeke, hau da, komunitateko kontsumo totalaren %4,9.

Eraberritutako energia eta batez ere eolikoaren abantailak, ez eraberritutakoarekin konparatuz (nuklearrak, karbono edo fuelezko termiko-

.....

*“Hala eta guztiz ere, ez dago eraginik ez duen giza aktibitate edo energia sortzerik”*

ak...) nabariak dira. Eraberritutako energiak ez ditu errekurso natural eskasiak kontsumitzen, ez du termikoak eta nuklearrak egiten duten moduan ingurugiroa zikitzen eta gainera, energia eolikoak esplotazio txikien auto kontsumorako erraz molda daiteke, sobera geratzen dena sare elektrikorara itzuliz.

Hala eta guztiz ere, ez dago eraginik ez duen giza aktibitate edo energia sortzerik. Energia eolikoak ere arazo batzuk dakartza. Hauetariko bat, hegaztiak errotetatik pasatzean jasan dezaketen heriotza da. Hegaztien jokaera ezin daiteke orokortu, beraz kasu bakoitzak ikertu eta beharrezko aldaketak egin beharko dira, zeren eta errotak mugikor eta bihurgarriak dira. Errotek estetiko ki duten eragina ere ikertu beharko da: beharrezko kableak eta loturak lurrazpian egon beharko dute. Gainera, traza-tu, dimentsioak eta pista horien etorkizunerako erabilera begirale egon beharko dugu. Eusko Jaurlaritzaren proiektua izanik eta Ertzaintzaren antenaren eraiki eta eta sarrerako pistak kokaera oso gertua dute-nez, adierazgarria da mendi pistetako plan bateratu bat ez egitea.

Eragin gutxien duen elektrizitate kontsumitzen ez dena da. Hau da, aukera dezakegun filosofia onena. Eraberritutako energia eta eolikoaren aldeko apostuaz gain, elektrizitatearen erabilera egokia egin behar dugu.

Eraberritu daitezkeen energiaren kontribuzioa, oraindik sinbolikoa da, totalaren %2a baino gutxiago (1994eko estatu espainiarreko datuak) eta energiaren kontsumotik, etxebizitzak, 1994eko datuen arabera, %23,8a betetzen du, kontsumo partiden lehenengo postuan dagoelarik. Kontsumoa murriztea da Ingurugiroa zaintzeko modurik onena eta aurrerapen ekonomiko nabarmena suposatzen du.

\* **EKIKO KIDEA**

## USTEAK USTE

### MOZORROA

**Urtero lez lagun asko eta asko irten da kalera dotore jantzita Maritxu egunean. Dekaloguak hala agintzen zuen. Santamasetako eskuprogramak ere antzerako gonbitea luzatzen du, baserritar jaztea alegia, baina jendeak ematen duen erantzuna joan zen ostiralean ikusitakora hurbildu ere ez da egiten. Gutxi dira abenduaren 22an soinean baserritar arropa darabiltenak. Auskalo ohitura sano hau zergatik ez den errotzen Santamasetan, berauek izanik herriko jairik euskaldunenak. Maritxukoak ordea ez dauka horrelako arazorik eta ez du izango, modak aldatu ezean. Bertakoek zein kanpokoek gutxi egiten diote muzin dotore irtetzeari. Nori ez zaio atsegin, bada, urtean behin sikiera zelako guapo/a dagoen entzutea? Edo komunikabideek helarazitako eta gizarte honetan arrakastatsuren diren, aktore/sa, kirolari, ekonomilari... edo gangster horien gisa kaleratzea? Abenduko jaietan ez dago tankerakorik; abarkei ezin zaie distira atera, baserritar soinekoak ez du eskote zabalik, hileapaindegira joatea soberan dago, eta txapel azpian gomina zentzubakoa da.**

**ANDER ETXEBERRIA**



Arrasateko HBk aurkeztutako mozioa aztertzeko plenoa egingo da gaur arratsaldean.

## Alkatearen atxiloketaren inguruan iritzia eman beharko dute alderdiek

Gaur arratsaldean pleno berezia egingo da Arrasateko Herri Batasunak aurkeztutako mozioa aztertzeko. Gudari Egunean jazo-tako gertakarien inguruan aurkeztu du mozioa HBk.

Mozioan irailaren 27an gertatutakoak gogoratzen dira. HBren arabera, Iturbide Egoitzaren parean manifestazioaren bidea moztu zuten ertzainek eta aurrera jarraitzea eragotzi zion. Gauzak horrela, Xabier Zubizarretak polizien gana hurbildu eta alkatea zela esanez arduradunarekin hitzegitea eskatu ei zuen. Ondoren, bultzaka eta indarrez furgioan sartu eta basera eraman zutela gogoratzen da.

Gertakari horien inguruan hiru puntu jasotzen dira HBren mozioan. Lehenik arrasatear guztiek bakean, publikoki eta poliziak parte hartu barik euren aldarrikapenen alde manifestatzeko eskubidea dutela esaten da. Bigarrenik, herritar guztiak eta bere-

ziki zinegotziak aurrez aipatutako egoeratan bitartekari egiteko legitimatuta daudela aipatzen da. Hirugarrenik, esku hartzen duen pertsona alkatea bada legitimitate hori handiagoa dela dio mozioak.

Udalbatzak, beraz, hiru gai horien inguruan eman beharko du iritzia.

### Herriari zuzendutako idatzia

Astean, bestalde, herriari zuzendutako idatzia kaleratu du HBk. Idatzi horretan ere irailaren 27ko gertakarien errebasoa egiten da, eta bide batez, gaurko plenora eta ondoren egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen da. Gutunean idatzita datorrenez, abertzale batek ezin du ulertu poliziek zelan egin diezaioketen aurre, Euskal Herriaren askatasuna defendatzeagatik hil diren gudarien aldeko manifestazio bati. HBren iritziz, eraso horien ardura politikoa EAJko pertsonaia ezagun batzuen gain dago.

### Gazteendako unitate psikiatrikoa

Depresioa, eskizofrenia edo anorexia nerbioa bezalako gaisotasun psikikoak dituzten gazteendako unitate zabalduko dute Aita Menniko arduradunek. Unitate berria Aita Menni ondoan dagoen etxe batean kokatuko da, eta orain, etxe hori egokitzeko obrak egiten ari dira.

Datorren hilabetez zerbitzua eskaintzen hasteko asmoa dute arduradunek, eta zehazki 12 eta 16 urte bitarteko bost gaztek izango dute toki horretan ingresatzeko aukera.

Orain arte jende helduarekin batera ingresatu dira arazo psikiatrikoak dituzten gazteak ere, baina ez da egoki ikusi gazteak eta helduak nahastea. Euskal Herrian ez dago gazteei zuzendutako ospital berezirik.

### Aramaio errekarako proiektua

LKS kontsultorak Aramaio erreka berreskuratzeko plana idatzi du Udalaren eskariz. Oraingoz aurreproiektua da LKSk egin duena, baina Udalak Diputazioari eta Eusko Jaurlaritzara bidaliko du ale bana. Diputazioaren asmoa Deba errekan kolektoreak jartzea denez, horiek jartzean Aramaio errekarako plana kontuan izan dezan eskatuko zaio Diputazioari.

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

*ESLU*  
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE

**Lore**

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50



Horrela geratuko da Hiper Eroski pareko errepidea.

## Bi glorieta eraikiko dira Hiper Eroski parean

LKS kontsultorak gertu du Hiper Eroski inguruko trafikoa bideratzeko proiektua. Horren arabera, bi glorieta eraikiko dira: handiena sahiesbideko joan-etorrirako, eta bigarrena Hiper Eroskirako edo Arrasatera sartu edo herritik irtetzeko. Bi glorieta eraikita, trafikoa arindu eta orain baino istripu gutxiago egongo dela espero da.

Proiektua inguru horretatik egunero 16.000 auto pasatzen direla kontuan izanik marraztu da: erdia sahiesbidetik pasatzen da eta beste erdia Arrasatetik dator edo herrira sartzen da. Proiektu berri honek, hala ere, hurrengo 20 urteetarako balioko du. LKS-

ko teknikoen arabera, epe hori pasatakoan inguru horretan 20.000 auto ibiliko dira, eta kopuru horren aurrean beste irtenbide bat aurkitu beharko da.

Azaroaren 19an Hiper-a zabaltzeko asmoa dagoela eta, segituan obrei hasiera eman nahi zaie. Asmoa astelehenean obretan hastea da, eta horrela, bost astetan bi glorietak eraikita eta seinale nahiz argiteria berria jarrita egongo dira. Udaleko Hirigintza Sailekoen esanetan, astelehenean obretan hasteko baimena emango du. 90 milioi inguru kostako da obra eta kopuru gehiena Eroskik ordainduko badu ere, Diputazioak 20 milioi jarriko ditu.

## Nortasun agiriaren berrikuntza

Udaltzaingoa ez daki oraindik noiz etorriko diren Arrasatera nortasun agiria berritzera. Hile honetan etorriko direla espero bada ere, Udaltzaingoiari ez zaio jakinarazi noiz etorriko diren funtzionariak. Jende asko ari da hurbiltzen Udaletxera nortasun agiria noiz berrituko den galdetzera, eta hori jakin bezain laster komunikabideetan horren berri zabalduko dutela esan dute Udaltzaingoko langileek.

## Telebista antenarako txabola

Bi txabolatxo eraikiko dira Gesalibarren telebista kate guztiak ikusteko jarriko den errepikatzailea babesteko. Santats mendian eraikiko dira txabolatxoak 679.000 pezetaren truke.


## Airteli baimena

Udalak baimena eman dio Airteli Kontzeziñoko antenan telefonia mugikorrerako trasformazio zentroa jartzeko.

# LENIZ ALUMINIOAK

Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.

Bi orriko atea



~~109.000 pta.~~

101.000 pta.

Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!


Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~

76.000 pta.

Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!



P.V.C.an  
udako  
beherapen  
bereziak!

Leihoen neurria Lzurre beharretara egokitzen dugu. Mota guztietako leihoak ditugu: poliuretanoa, aluminioa, apurketa termikoa...

Oharra: Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu

# Sprik Zerrajeraren zati bat erosi du toki horretan EBZ kokatzeko

UCEM S.A.L.ek SPRIri saldu dio Zerrajeraren zati bat, eta beraz, hor jarriko du EBZ Industriaren sustapen eta eraldaketarako elkarteak. Salmenta asteartean itxi zen, bi aldeek notarioaren aurrean salmenta jasotzen duen kontratua sinatu ostean.

Guztira 10.000 m<sup>2</sup> azalerraren jabe egin da SPRI eta erosketa 370 milioi pezeta kostatzen da. UCEM S.A.L.ek Zerrajeraren eraikuntza zentrala (erlojua duena) eta inguruko lursailak saldu dizkio. Horrela, hasiera batean Enpresa eta Berrikuntza Zentroa Zigarrolan eta ondoren Saiolanen bertan kokatuko zela uste bazen ere, azkenean Zerrajeraren orubean joango da.

UCEM S.A.L.eko ardu-



Zerrajeraren zati hau erosi du SPRIk.

radunek pozik izenpetu dute salmenta baina berandu datorrela ere uste dute. Arduradunen berbetan, 94ko urrian lortu zuten akordioa SPRIekin baina orain arte ez da gauzatu. Epealdi hori luzea izan

da UCEMekoendako, pentsiodunei eta langabezia geratuz lana uztea aukeratu zutenei ordaintzeko dirua behar zuten eta. Arduradunek adierazitakoaren arabera, 370 milioiak langile horiekin zuten

zorra estaltzeko erabiliko dira.

Zerrajeraren orubearen inguruan dauden asmoak, hala ere, ez dira hor amaitzen. Beste zati batean 200 etxebizitza baino gehiago eraikiko dira, eta hortik ateratzen den dirua gaur egun dauden lanpostuei eusteko erabiliko da. Beste lursail zati bat, berriz, bertan industrialdea kokatzeko asmoz utzi da. Salmenta horretatik lortutako dirua ere gaur egun dauden bi lantegien iraupenera zuzenduko litzateke. Gaur egun UCEM Zerrajeran 48 lagun ari dira lanean, eta Mecanicas Arrasten 35. Lehenengo lantegia bide onetik badoa ere, bigarrena ez doa hain ondo eta produktu berria egitea izan daiteke irtenbidea arduradunen ustez.




## YOSU THERMIK

LEIHO ISOLATZAILEAK




Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

**Irtenbide  
aproposena!**



(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.  
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

YOSU THERMIK

YOSU THERMIK

YOSU THERMIK

YOSU THERMIK

YOSU THERMIK

YOSU THERMIK



**Garagartzako San Migel jaietan urtero moduan ez zen bolo txapelketa falta** izan. Gauean burututako txapelke-

tan Alejandro Mendizabal bertako alkatea izan zen irabazlea. Gotzon Etxagibelek berriz, bigarren postua eskuratu zuen.



Eugenio Zubiak **10 kiloko perretxikua** hartu zuen Boli-bar aldean. Perretxikua pago baten sustrai gainean hazitakoa da eta zati eder bat bertan geratu zela ere jakin izan dugu. Argazkian Amaia agertzen da Eugenioren alaba bere aitak jasotako pieza ederra erakusten. Perretxikua gainera jangarria da. On egin!



**Toki Argi** jubilatutako etxeko hainbat lagun Beasainen izan ziren iraila bukaeran neurtutako ibilaldi batean parte hartzeko. Ibilbidea luze samarra bazen ere, Arrasateko ordezkariak ondo bukatu zuten. Toki Argitik zortzi lagun joan ziren: Iñaki Lizarralde, Bixente Azkarate, Irene Gonzalez, Antonio Navarro, Regino Otero, Dioni Moreno, Basilio Alvarez eta Amelia Casas.



**UDA elkartearen urrezko eztaiak** betetzeko omenaldi berezia jaso zuten hirugarren mailara igo ziren azken hiru taldeek. 50 urte hauetan hiru bider igo da UDA taldea 3. mailara. Lehen aldia 71-72 denboraldian izan zen. Bigarrena 82-83 denboraldian eta azkena 85-86an. Talde horietan arrasatear ugari egon da.



**Ainhoa Jauroso** eta **Jesus Santacristina** arrasatearrak irailaren 28an ezkondu ziren Dorletako Santutegian. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean izan zuten eta ezkon-bidaian Estatu Batuetara joan dira. Zorionak!



**Jose Angel Lekuona** eta **Arantza Ruiz** Eskoriatzan ezkondu ziren ekainaren 8an. Zorionak bikote!

EPELDE

### IZEN PROPIOAK

● **Goio Aranak** 34 urteko arrasatearrak eta ARRASATE PRESSEKO maketatzaileak, Foru Aldundiaren laguntzaz Estatu Batuetako Indianapolis hirian egingo den SND (Society of Newspaper Design) 18. jardunaldietan hartuko du parte. Gipuzkoako euskarazko herri prentsaren ordezkari bakarra izango da Goio.

● **Maite Barreña** 28 urteko durangarra Berdintasunerako Agente berria da. Maite asteartean hasiko da lanean eta Rosa Mondragon ordezkatzeko du.



**Arrasateko konpartsa-**  
**ko lagunak Biasterira**  
**joan ziren bertako**  
**ardoa frogatu eta**  
**eguna pasatzera.**  
**Bertan San Viator**  
**ikastetxeko lagun**  
**talde batekin elkartu**  
**eta ez zuten aukera**  
**galdu argazkitxo bat**  
**ateratzeko. Konpart-**  
**sako lagun batzuk ez**  
**zituzten Errioxako**  
**bodegak ezagutzen**  
**eta asko gustatu**  
**zitzaenez datorren**  
**urtean bidaia errep-**  
**ikatzeke asmoa ei**  
**dute. Ondo pasatu**  
**hurrengoan ere!**

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak**  
**beirina eta kristalak**  
**akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

# Harpidedun: berri edo oparitu harpidetza!



Arrasatek kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatek kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **3.000 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 15a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:



- KUTXA 001026694.8 (Portaloiko bulegoa).
- EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

**77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE



## Gida 97

Laugarren urtez, **ARKOK GIDA KOMERTZIALA** kaleratuko du eta bertan Leintz Bailarako telefono erabilienak eskura izan ditzazun.

GIDAn agertzeko negozio bat edukitzea nahikoa da.

Zeure datuak ondo agertzen ez badira, edo GIDARI buruz zerbait esateko baduzu deitu **77 08 15** telefonora.



**LASTER BISITATUKO ZAITUGU!**



# Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Lehenengo ihardunaldia •  
Protagonistak: Hapoel Jamón  
eta Vivoras taldeak • Emaizak  
eta sailkapenak •*



## Berriro martxan Zaldibar txapelketa

**H**iru hilabeteko atsedena izan ondoren pasa den asteburuan jarri zen abian Zaldibar txapelketa. Lehen ihardunaldian talde guztiak aurkeztu ziren beraz Maritxu Kajoi biharamo-

na ez zen aitzakia izan Zaldibar eta Iturripeko kantxetara hurbiltzeko. Partiduetan normaltasuna nagusi izan arren, ezusterik egon zen. Esatebaterako Argi Ibilik aurreko denboraldiko txapeldunak ezin izan zuen

irabazi, ezta Fosforosek ere, urteroko faboritoak. Une honetan sailkapeneko liderrak talde hauek dira: A taldean Irati STS, B taldean La mosca gao eta azken taldean Bedarreta taberna.

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**"PAL"**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria  
Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M**  
**ARENAZA**  
Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

**OSORIK**  
**PUB**  
Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**Sailkapenak**

<b>A taldea</b>	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	1	1	0	0	11	0	<b>2</b>
Betrayer	1	1	0	0	7	0	<b>2</b>
Ojo Avisore	1	1	0	0	7	1	<b>2</b>
Berango Sukal.	1	1	0	0	6	2	<b>2</b>
DKB	1	1	0	0	5	1	<b>2</b>
Abinagraus	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
Galartza Konten	1	1	0	0	5	3	<b>2</b>
Arrogoi Taberna	1	1	0	0	3	1	<b>2</b>
Ma la pela	1	1	0	0	3	1	<b>2</b>
Baneuko	1	1	0	0	3	2	<b>2</b>
Kriskibalda	1	1	0	0	2	0	<b>2</b>
Lorategi Potroak	1	0	0	1	3	5	<b>0</b>
Aurrera Bolie	1	0	0	1	2	3	<b>0</b>
Pipwhis	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>
Alai Gozokiak	1	0	0	1	2	6	<b>0</b>
Totem	1	0	0	1	1	3	<b>0</b>
Potrosorri	1	0	0	1	1	3	<b>0</b>
Leya	1	0	0	1	1	5	<b>0</b>
Kaxi Ganamos	1	0	0	1	1	7	<b>0</b>
Viboras	1	0	0	1	0	2	<b>0</b>
Oñaniereng	1	0	0	1	0	7	<b>0</b>
Etxe Mobil	1	0	0	1	0	11	<b>0</b>

<b>B taldea</b>	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
La mosca Gao	1	1	0	0	12	7	<b>2</b>
Naranja Mekanika	1	1	0	0	9	2	<b>2</b>
Motz	1	1	0	0	8	1	<b>2</b>
ZZPPW7	1	1	0	0	7	3	<b>2</b>
Los Heredia	1	1	0	0	6	5	<b>2</b>
Ganbelas	1	1	0	0	5	1	<b>2</b>
Cerv Leintz	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
Sobredosis de Txeira	1	1	0	0	5	3	<b>2</b>
Insert Coin	1	1	0	0	4	1	<b>2</b>
Gualtrapas	1	0	1	0	5	5	<b>1</b>
Ke Oxtias	1	0	1	0	5	5	<b>1</b>
Pepelus	1	0	1	0	1	1	<b>1</b>
Okoretegi	1	0	1	0	1	1	<b>1</b>
Los Innombrables	1	0	0	1	7	12	<b>0</b>
Argi Ibili	1	0	0	1	5	6	<b>0</b>
Kinder Konpresa	1	0	0	1	3	5	<b>0</b>
Diego Antonio	1	0	0	1	3	7	<b>0</b>
Perrahotsa	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>
Jotakabau	1	0	0	1	2	9	<b>0</b>
Fosforos	1	0	0	1	1	4	<b>0</b>
Elisabeth	1	0	0	1	1	5	<b>0</b>
Hapoel Jamon	1	0	0	1	1	8	<b>0</b>

<b>D taldea</b>	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Bedarreta Taberna	1	1	0	0	13	2	<b>2</b>
AC Surcos	1	1	0	0	10	0	<b>2</b>
Orlando Piratas	1	1	0	0	8	6	<b>2</b>
Txeyenex	1	1	0	0	6	1	<b>2</b>
Tronkoteak	1	1	0	0	5	0	<b>2</b>
MSM Ing Int	1	1	0	0	5	1	<b>2</b>
Adelaida	1	1	0	0	5	2	<b>2</b>
Anbotoste	1	1	0	0	4	3	<b>2</b>
Danok Lagun	1	1	0	0	4	3	<b>2</b>
KK Jauriaritzari	1	1	0	0	3	2	<b>2</b>
Koka Juniors	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
Nuevo Taberna	1	0	1	0	4	4	<b>1</b>
Hirei	1	0	0	1	5	8	<b>0</b>
Cart Igamo	1	0	0	1	3	4	<b>0</b>
Borrocn Roll	1	0	0	1	3	4	<b>0</b>
Sokoakoak	1	0	0	1	2	3	<b>0</b>
Lautherbrun	1	0	0	1	2	5	<b>0</b>
Los Dimy	1	0	0	1	2	13	<b>0</b>
Sortu Informatika	1	0	0	1	1	5	<b>0</b>
Bukanak	1	0	0	1	1	6	<b>0</b>
Iluna Taberna	1	0	0	1	0	5	<b>0</b>
Rotor de Bolbogrado	1	0	0	1	0	10	<b>0</b>

**Emaitzak**

**LEHEN IHARDUNALDIA**

**A taldea**

Baneuko 3 - Aurrera Bolie 2  
 Berango Sukaldeak 6 - Alai Gozokiak 2  
 Galartza Konten 5 - Lorategi Potroak 3  
 Etxe Mobil 0 - Irati STS 11  
 Viboras 0 - Kriskibalda 2  
 Totem 1 - Arrogoi Taberna 3  
 Kaxi Ganamos 1 - Ojo Avisore 7  
 Oñaniereng 0 - Betrayer 7  
 Pipwhis 2 - Abinagraus 5  
 DKB 5 - Leya 1  
 Me la pela 3 - Potrosorri 1

**B taldea**

Sobredosis de Txeira 5 - Kinder konpresa 3  
 La mosca Gao 12 - Los innombrables 7  
 Diego Antonio 3 - ZZPPW7 7  
 Hapoel Jamon 1 - Motz 8

Fosforos 1 - Insert Coin 4  
 Elisabeth 1 - Ganbelas 5  
 Gualtrapas 5 - Ke oxtias 5  
 Los Heredia 6 - Argi Ibili 5  
 Pepelus 1 - Okoretegi 1  
 Naranja Mekanika 9 - Jotakabau 2  
 Perrahotsa 2 - Cerv Leintz 5

**D taldea**

Koka Juniors 4 - Nuevo Taberna 4  
 Sortu Informatika 1 - MSM Inge Integ 5  
 Anbotoste 4 - Cartonajes Igamo 3  
 Borrocn Roll 3 - Danok Lagun 4  
 Los Dimy 2 - Bedarreta taberna 13  
 Hirei 5 - Orlando Piratas 8  
 Tronkoteak 5 - Iluna Taberna 0  
 Adelaida 5 - Lautherbrun 2  
 KK Jauriaritzari 3 - Sokoakoak 2  
 Ac Surcos 10 - Rotor de Bolbogrado 0  
 Bukanak 1 - Txeyenex 6

**Hurrengo partiduak**

**URRIAK 12, ZAPATUA**

**Zaldibar**

8.50 Abinagraus - Onaniereng  
 10.00 Iluna Taberna - Hirei  
 11.00 Rotor de Bolbogrado - KK Jauriaritzari  
 12.00 Okoretegi - Los Heredia  
 13.00 Danok Lagun - Anbotoste  
 14.00 Aurrera Bolie - Me la pela  
 15.00 Alai Gozokiak - Baneuko  
 16.00 Cerv leintz - Naranja Mekanika  
 17.00 Ojo avisore - Totem  
 18.00 Ganbelas - Fosforos  
 19.00 Potrosorri - DKB

**Iturripe A**

10.00 MSM Ingen Integ - Koka Juniors  
 11.00 Arrogoi Taberna - Viboras  
 12.00 Betrayer - Kaxi Gananos  
 13.00 Argi Ibili - Gualtrapas  
 14.00 Cartonajes Igamo - Sortu Informatika  
 15.00 Kinder Konpresa - Perrahotsa  
 16.00 Kriskibalda - Etxe Mobil  
 17.00 Ke oxtias - Elisabeth  
 18.00 Leya - Pipwhis  
 19.00 Lorategi Potroak - Berango Sukaldeak

**Iturripe B**

13.00 ZZPPW7 - La mosca Gao

14.00 Bedarreta Taberna - Borrocn roll  
 15.00 Los Innombrables - Sobredosis de Txeira  
 16.00 Orlando Piratas - Los Dimy  
 17.00 Motz - Diego Antonio  
 18.00 Insert Coin - Hapoel Jamon  
 19.00 Nuebo taberna - Bukanak

**URRIAK 13, DOMEKA**

**Zaldibar**

8.50 Jotakabau - Pepelus  
 10.00 Lautherbrun - Tronkoteak  
 11.00 Txeyenex - AC Surcos  
 12.00 Irati STS - Galartza Konten  
 13.00 Sokoakoak - Adelaida.

## Protagonistak

### Mikel Hapoel Jamon taldea

— Aurten hasi zarete txapelketan. Zer dela eta?

— Aurreko urtetan beste talde batzutan ibili ginen baina aurten talde bat osatzea pentsatu eta hemen gaude. Lau kuadriletako jendeak osatzen dugu Hapoel Jamon taldea.

— Nola ikusten duzue zuen burua txapelketan?

— Txapelketan izena eman dugu ondo pasatzeko. Helburu nagusia hori da, eta gainera lehen urtea izanda ez dut uste oso urruti heltzeko gaitasuna izango dugunik. Lehen neurketan Motz tal-



dearen kontra 8 eta 1 galdu dugu. Horregatik dena dela, ez gara desanimatzen eta aurrerantzean ere ahal dugun guztia emateko gertu gaude.

— Egokitu zaizuen multzoa nolakoa da?

— Guretako oso txarra. Talde sendoek osatzen dute multzoa eta zaila ikusten dugu lehen fasea gainditzea. Lehen postuetan ezin bagara kokatu, azkenak ez izateko borrokatuko dugu, Hori ere ez da lan makala izango eta!

## Protagonistak

### Pako Vivas taldekoa

— Vivas talde berria da Zaldibarren?

— Ez, urtero izaten gara Zaldibarren baina aurten izena aldatu dugu. Lehen Gazte Txokoa ginen, orain berriz Vivas.

— Nola ikusten duzu txapelketa?

— Ez da samurra izango, gero eta talde sendoagoak daude eta gero eta gehiago kostatzen da aurrera egitea. Gu berriz ahalik eta goren heltzeko partiduz partidu onena ematen saiatuko gara.

— Multzo samurra ego-



kitu zaizue?

— Ez dakit, soldaduskatik orain bi egun etorri naiz eta ez dut begiratu ere egin multzoa.

— Hurrengo fasera hel-

duko zarete?

— Bai jakina, ez izan zalantzarik!

— Sasoiez nola zaudete?

— Urtetik urtera hobeto eta igerri egiten da

## Labur

### LEHEN IHARDUNALDIA

Lehen ihardunaldian eguraldi txarra izan zuten Zaldibar txapelketako jokalariek. Hala ere talde guztiak aurkeztu ziren eta normaltasuna izan zen nagusi.

### TRAJEDUNAK KANTXAN

La Mosca Gao eta Los Innombrables taldeek jokatu zuten txapelketako lehen partidua Zaldibarren. La Mosca Gaoko pare bat jokalarik trajeaz jokatu zuten eta ondo jokatu gainera. La Mosca Gaok 12 eta 7 irabazi zuen.

### HARITZ ZUBIZARRETA

La Mosca Gao taldeko jokalariek lehen ihardunaldiko garaipena zaurituta dagoen Haritz Zubizarreta taldekideari eskaini diote. Ea bada laster osatzen den!

### GOLAK

lehen ihardunaldian 258 gol sartu dira Zaldibar txapelketan. Atera begira talde trebeena Bedarreta taberna izan da 13 golekin. Bost taldek berriz, ez dute golik sartu: Rotor de Bolbogrado, Iluna taberna, Vivas, Etxe Mobel eta Onaniereng.

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tfnoa / FAX: 79 01 82

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilioa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo  
handiko erropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 81 82

**HAMABOSTALDI  
BEREZIA**

**Urriaren  
10etik 26ra**

**EROS EZAZU BIGARREN  
ESKUKO AUTOA CITROËN-EN**

Gutxienez

**100.000**

pta. **eskaintzen dizugu** zure auto zaharragatik.\*

**Marka, modelo eta prezio guztietako autoak, baita urtebete baino gutxiagokoak ere.**

Berriak bezalakoak, egoera ezin hobean eta aparteko prezioetan.

**Europar garantia.**

Aukeraketa zehatza egiten dugu eta sistema zorrotza erabiltzen dugu zuri aukeraketa bermea eskaini ahal izateko, konponketa kobertura europearraz eta aldaketarako autoaren posibilitateaz, 24 hilabetera arte (autoaren egoeraren arabera).

**Zure neurriko superfinantzaketa.**

Gure markaren finantzieraren bidez, zure beharretara hobeto egokitzen den finantzaketa formula eskaini genezake.

Larunbat eta ingandean  
zabalik\*\*



**Eurocasion**

Okasioko autoak. Primerakoak.

**Eurocasi3n Citro3n Sarea**

# Udalaitzeko gurutzeak 25 urte

Maider Egües

**1971ko urriaren 2ra arte Udalaitzek ez zuen gurutzerik izan. Urte eta egun horretan berriz, gaur egun Arrasatetik ikus daitekeen gurutze handia jarri zuten 70 gizonen artean. Gurutze hura mendian hil zireneko eta hiltzen diren mendizaleen oroimenez jarri zuten, baina baita Angel Balzategi Iregi "Erregetxo" zenaren gogoa betetzeko ere. Erregetxoren oroimenean, 10 egun lehenago, Udalaitzeko tontorrean dagoen gurutze txikia jarri zen. Erregetxo 1971ko abuztuaren 28an hil zen horrenbeste maite zuen mendia gurutzearekin ikusi barik. Orain 25 urte betetzen dira 70 gizonen artean gurutzea Udalaitzeraino eramanean eta hantente jarri zutenetik.**

**E**gunotan Udalaitzeko gurutzea jarri zeneko 25 urteak ospatzen ari dira hainbat ekintzen bidez. Gurutze hori jarri zuten gizonendako azkar pasatu da denbora eta oraindik ondo gogoratzen dute 1971ko urriaren 2. eguna, gurutzea besoetan hartu eta Udalaitzeko tontorreraino

eraman zuteneko egun hunkigarri hura. Gurutzeak esanahi handia du Udalaitz zaleentzat, bere inguruan istorio polita dago eta.

## ANGEL BALZATEGI IREGI, "ERREGETXO"

Udalaitzeko bide, zirritu, koba eta bidexka guztiak inork baino hobeto eza gutzen zituen arrasatearra

zen Erregetxo. Udalaitzek ez zion sekreturik gordetzen. Mendizale amorratua izanik, inguruko tontorrak ondo eza gutzen zituen. Hala ere, Udalaitz maite zuen gehien.

Horrenbestetan igotako mendia inork baino hobeto zaintzen zuen. Jendeak Udalaitzen uzten zituen paper, zakar, lata eta plastiko guztiak batzen zituen bere magalak beti garbi egon zitezten. Haitzetatik eroritako harri solteak ere kendu egiten zituen mendira igotzen zutenek istripurik izan ez zezaten. Bere lagun Axpekin batera, Udala, Besaide eta Kanpanzartik Udalaitzeruntz abiatzen diren bide guztiak seinatu zituen. Ezagutu zutenek gizon jator, eskuzabal eta xumea zela diote eta gainera, gustora laguntzen zieten Udalaitzera mendia eza gutu nahi zuten kanpotarrei.

Bera zen "Jan da lo" ohiua Udalaitz puntatik botatzen



zuena. Oihu hori tontorra igotakoan sentitzen zuen poza azaltzeko botatzen zuen, baina baita Udalaiztera igotzen ez ziren arrasatearrak animatzeko gonbidapen modura. Udalaiztera igotzerik nahi ez zutenei "Zueik bakarrik gurosue jan da lo" esaten zien. Esaten dutenez, haizeak Udalaranzko norabidean jotzen zuenean, bere oihua Udala auzotik entzun zitekeen.

Azkenean, "Jan da lo" mendizale talde bihurtu zen eta Erregetxo izan zen sortzailea. Mendizale talde hori Juan Axpek, Nicolas Agirrek, Ignacio eta Alberto Balzategik, Javier Bergarechek, Daniel Gaztañaga "Ametza" k, Gerardo eta Jesus Jau-

bukatu ondoren guztiak Centro Católico-n elkartu eta ahalik eta denbora laburrenean Erregetxoren oroimenez Udalaizten gurutzea jartzea erabaki zuten.

### **KOKALEKUAREN EZTABAIDA**

Gurutzea jartzearen erabakia hartuta, arduen banaketa egin zen irailaren lehen egunean egin zuten batzarrean. Batzar horretan Roman Lopez Rubiok aurkeztu zuen gurutzearen proiektua onartu zen. Gurutzea egiteko materiala Talleres Arrasateri enkargatu zitzaion. Alecoopek berriz, gurutzea margotu eta bizar kentze lanak egin zituen.

ko ziren: bata tontorrean Erregetxoren oroimenez eta beste Arrasateetik ikus zitekeen haitz punta batean. Bigarren hau mendian hil zirenen oroimenean jarriko zen eta Alecoop-ek egingo zuen.

### **BI GURUTZEAK UDALAITZEN**


1971ko irailaren 25ean jarri zen Erregetxoren gurutzea Udalaizten. Arrasateko parrokoak, Erregetxoren lagun handia zen On Jose Luis Iñarrak egindako bertsoa ere jarri zen plaka batean gurutzeari itsatsita.

Gurutze handiak berriz, txikiak baino lan gehiago eka-

batzutara, oinarriana bete zezakeen haitz egoki bat aurkitu zen eta horrela, materialaren igoera ekidin ahal izan zen. Haitz horretan lau zulo egin ziren, ondoren, gurutzeak oinarrian izango zituen burdinezko lau makilak sartu ahal izateko. Barandila bat ere jarri zen gurutzea ikustera hurbiltzen ziren mendizaleak amildegitik behera erori ez zitezen. Gurutzea berriz, urriaren 2an igo zuten.

### **EZUSTEKORIK GABEKO OPERAZIOA**

Buruhauste bat baino gehiago ekarri zuen gurutzea



regik eta Gregorio Layanak osatzen zuten.

Erregetxok, dena den, bazuen pena bat: horrenbeste maite zuen mendiak gurutzerik ez izatea. Askotan adierazten zuen mendirik gogor eta ederrenak gurutzerik ez izateak sortzen zion tristura. Azkenean, bere gogoia bete barik heldu zitzaion heriotza 1971ko abuztuaren 27an.

Hurrengo egunean Jan da lo taldeko lagunek euren sorbaldetan eraman zuten Erregetxo hilobira. Elizkizuna

Hurrengo larunbatean, irailaren 4an, gurutzearen kokalekua erabakitzeko beste bilera bat egin zen eta orduan sortu zen eztabaida: batzuk gurutzea Arrasateetik ikustea nahi zuten baina horrek gurutzea tontorrean ezin jarri izana zekarren; beste batzuk berriz, gurutzeak Udalaizteko haitz garaienean egon behar zuela esaten zuten, baina horrela izanez gero, ez litzateke herritik ikusiko. Eztabaida hura konpontzeko erabaki salomonikoa hartu zuten batzarkideek. Bi gurutze jarri-

ri zuten. Bere dimentsioek gogorrago egin zuten Udalaizterainoko igoera: 250 kiloko pisua, 10 metroko luzeera eta 3 metro t'erdiko zabalera zuten. Gurutzea igo baino lehen, oinarri bat prestatu behar zitzaion honi. Proiektu teknikoa egin zuen Oñatiko Talleres Igartua-k zioenez, metro karratu bateko hormigo oinarria behar zen gurutzea ondo eutsita egon zedin. Horrek zera esan nahi zuen, 2.500 kilo ur, are eta zemento igo behar zela gurutze jarri behar zen haitzeraino. Azkenean, gurutzea jartzea pentsatuta zegoen lekutik metro

igotzeko estrategiaren eztabaidak baina azkenean erabaki bat hartu zen. Gurutzearen luzeera osoan eta metro bateko distantziaz, 10 euskarri jarriko ziren. Euskarri bakoitza bi gizonek helduko zuten, bakoitza gurutzearen alde batean jarrita. Aurretik berriz, 15 bat gizon joango ziren soke-tatik tira egin. Guztira beraz, 35 gizonen artean helduko zitzaion gurutzeari. Igoera gogorra zenez eta pisua handiagoa oraindik, beste 35 lagun gehiago behar ziren txandak egiteko. Hauez gain ur garrafoiak eramaten zituzten 2 gizonek ere osatzen zuten taldea. Gurutzearen igoeraren martxa

antolatzearen, oinez egindako minutu bakoitzeko bi minutuko atsedenditxo egingo zela erabaki zuten.

1971ko urriaren 2an, arratsaldeko ordu bi t'erdietan, Udalara heldu zen gurutzea Donatoren kamioian. Udala auzotik txabolaraino kamioi berezi batean igo zuten eta handik aurrerako bidea 70 gizonen ahaleginaz egin zen. Ez zen ezustekorik gertatu gailurreranzko bidean eta bi ordu eskasetan gurutzea goian zegoen.

Unerik arriskutsuena zeterren orain: gurutzea tentetu beharra. Lehenik eta behin euskarriak kendu eta gurutzearen bi makilak elkartu zituzten. Ondoren tximistorratza gurutzearen barrenean sartu eta lau soka lotu zituzten gurutzearen bi makilak elkartzen ziren angeluan. Gurutzearen oinarrian egurrezko tako bat jarri zuten gurutzea igotzerakoan honek topea egin zezan. Ondoren gurutzearen igotze-

ra hasi zen: lau taldek sokak eusten zituzten; beste gizon batzuek lau pertigekin gurutzea altxatzen zuten. Dena ondo zihoan baina bapatean soka bat haritzen hasi zen. Norbaitek oihiu egin eta apurtzen hasitako soka eusten zuen gizon taldeak indarra egiteari utzi zion. Beste norbaitek "Gora, gora!" oihukatu zuen. Ez zegoen eztabaidarako unerik. Azkenean soka berriz tentetu eta


menditik behera zihoazela gizon bat txarto sentitzen hasi zen: sintomek bihotzeko baten antza zuten. Behera heldu eta ospitalera eraman zuten baina zorionez sustoa ez zen urrunago heldu. Egun bateko atsedena nahikoa izan zen gizona ondo jartzeko.

## GURUTZEAREN INAUGURAZIOA

Urriaren 12an egin zen



1971ko urriaren 2an 70 bat gizon Udalaizeruntz abiatu ziren gurutzea jartzeko asmoarekin. 20 gizonen artean gurutzeari heldu, beste 15ek aurretik sokekin tira eginez eta txandaketak eginez, bi ordutan goian ziren. Oinez egindako minutu bakoitzeko, bi minutuko atsedenditxo egingen zuten. Gurutzeak 250 kiloko pisua zuen.



## Udalaitz Eguneko egitaraua

### Urriak 12

**8.30etan:** Udala plazan hasi Udalaizerantz igotzen.

**9.30etan:** Udala auzoan elkartu mendira igotzen hasiteko.

**11.00etan:** Meza Santua Udalaitez mendi tontorrean, (euria eginez gero, Udalako San Esteban elizan eguerdiko 12.00etan). Bertsolariak izango dira.

**12.30etan:** Udala auzoan kalejira eta dantzak. Arrasateko trikitalariak, dultzaineroak eta Lore Gazteak dantza taldea.

**19.00etan:** Amaia Antzokian jaialdia. Juanito Arzamendiren zuzendaritzapean Goikobalu eta Arrasate Musikaleko Bandak Udala Mendi eta Txanton Piperri abestuko dute. Ondoren ASA taldearen diapositiba emanaldia eta Lore Gazteak taldearen ikuskizuna.

gurutzea poliki poliki alxtatuz zihoan egurrezko takoa-ren gainera heldu arte. Gai- nean zegoela eta sokekin tente mantentzen zelarik, lau hodi zituen burdinezko "alkondara" bat jarri zen gurutzearen lepoan. Pertiga gisa erabilitako burdinezko lau makilak lau hodieta- tik sartu eta zortzi gizonen artean gurutzea alxtatu zen. Kon- tu handiz, aurrez haitzean egindako lau zuloetan sartu zuten gurutzearen oinarria. Gurutzea Arrasate osotik ikus zitekeen. Operazioaren amaiera zoriontsua adieraz- teko hainbat etxalderok ez- ttanda egin zuten Udalaiz- teko haitzetan.

70 gizonen beherantzako bideari ekin zioten Udala- mendi kanta abestuz. Euren asmoa Udalako Pildainen afa- ri-merienda egitea zen baina

gurutzearen inaugurazioa. Udalamendi abestiaren letra zuen plaka bat itsatsi zitzaion gurutze handiari eta hainbat paper atera ziren inaugurazio egunean jende guztiak Uda- lamendi abestu zezan.

Egun horretan On Jose Luis Iñarra parrokoak meza hunkigarria ospatu zuen gurutze eta hodei beltzen azpian. Arrasateko jende asko igo zen mendira. Lagun kopu- rua ez zen zehaztu baina 2.000 eta 5.000 lagun artean gertu- ratu zirela esan zuten egun- kariak. Mezan parrokoak prestatutako bertsoak kanta- tu ziren eta azken bedeinka- pen eta gero meza amaitu eta hodeiak urrundu ziren. Ospa- kizunera hurbildutako lagu- nek beherantzako bideari ekin zioten. Inaugurazioa Lore Gazteak dantza taldeak Uda- lan eskaini zuen dantzaldi- rekin amaitu zen.

# Eskubaloi taldea denboraldi berriaren aurrean

**A**rrasate eskubaloi taldeak zapatuan jokatu du denboraldiko lehen neurketa eguerdiko 12.30etan Iturripen. Aurkaria Kataluinako Sant Esteve Sesrovi-res taldea izango da. Talde horren gainean arrasate-arrak ez dakite gauza handirik, beraz partidua ikusi arte zaila da egongo den maila iragartzea. Bestalde, aurrean eskubaloi taldeak hiru aurpegi berriekin hasiko du denboraldia: Iñaki Irur-

tia hegalekoa, Roberto Zabala atezaina eta Ibon Alzelai entrenatzailea. Iaztik hona berriz, hiru baja eman dira: Jokin Esnal zentrala, Saul Gonzalez eta Jose Antonio Moreno atezainak.

Entrenatzaile berriak helburu handienak ditu aurtengo denboraldirako. Bere ustez goialdean egoteko taldea egon badago Arrasaten, beraz une honetan garaipenak lortzea falta zaizkie konfidantza hartu eta talde moduan lehen mailan sendotzeko.

Arrasate esku-  
baloi taldeko fitxake-  
ta berria Roberto  
Zabala atezaina da.  
Jokalari honen argaz-  
kia ezin izan dugunez  
lortu, hauek dira  
datuak.

**Roberto Zabala**

23 urte  
1,80 altuera  
78 kilo  
atezaina



**Ibon Azkue**

24 urte  
1,66 altuera  
73 kilo  
atezaina



**Angel Moraleja**

29 urte  
1,70 altuera  
75 kilo  
hegalekoa



**Iñaki Iurtia**

22 urte  
1,85 altuera  
80 kilo  
hegalekoa




**Asier Kortabarria**

24 urte  
1,88 altuera  
80 kilo  
zentrala



**Ibon Enbil**

21 urte  
1,93 altuera  
94 kilo  
hegalekoa



**Mikel Loiti**

24 urte  
1,72 altuera  
73 kilo  
pibota



**Ion Iraola**

23 urte  
1,75 altuera  
83 kilo  
hegalekoa




**Igor Ansuategi**

23 urte  
1,77 altuera  
73 kilo  
hegalekoa



**Eneko Galdos**

21 urte  
1,87 altuera  
77 kilo  
pibota




**Fran Jimenez**

21 urte  
1,80 altuera  
80 kilo  
hegalekoa



**Iñigo Lz de Abetxuko**

21 urte  
1,88 altuera  
84 kilo  
hegalekoa



**Eneko Arrieta**

20 urte  
1,84 altuera  
82 kilo  
zentrala



**Ibon Alzelai**

28 urte  
entrenatzailea  
legazpiarra



**Rosa Lasagabaster**

25 urte  
bigarren  
entrenatzailea  
eskoriatarra.



# Aitor Lopez Rekarte 2000a arte Realeko jokalaria

Aitor Lopez Rekarte arrasatearra lehen mailako Real taldeko jokalaria izango da 2000 urteko ekainaren 30a arte. Aitorrek astelehenean sinatu zuen lau urte hauetan Realarekin lotzen duen kontratua. Hala ere, Real B taldean jokatzeko fitxa ere izango du jokalaria arrasatearrak, eta lehen mailako taldean aukera izan arte Inaxio Kortabariaren gidaritzapean arituko da. Aitor infantiletan 12 urterekin joan zen Realera. Gazte gaztetatik jokatzeko trebezia berezia erakutsi zue-



Aitor Lopez Rekarte.

lako 15, 17 eta 18 urte azpiko selekzioetan jokatu du hainbat partidu. Orain dela

aste batzuk berri, 21 urte azpiko selekzioarekin egin zuen debuta Zaragozan jokatu lagunarteko neurketan. Aitor Lopez Rekartek hegalean jokatzeko eta baloiari hanka biekiko ondo ematen dionez eskuman zein ezkerrean joka dezake. Lateral postuan jokatu arren, gazte honi zelai erdiko lana gehiago gustatu ei zaio baina berak dioen bezala garrantzitsuen jokatzeko da, beraz entrenatzaileak jartzen dion edozein lekutan jokatzeko gertu dago.

## Profesional mailako kriteriuma Aretxabaletan

UDA kirol elkartearen 50 urteurrena ospatzeko ekin-tzen barruan profesional mailako kriteriuma antolatu da Aretxabaletan domekarako. Kriteriumak hiru froga izango ditu. Goizeko 11.30etan puntuazio froga, 12.15etan fondoa eta ordubata aldera kanporaketa. Lasterketan munduko txapelketara joan ez diren txirrindulari euskaldun profesional gehienak izango dira eta baita inguruko hainbat txirrindulari afizionatu ere. Banesto, ONCE, Mapei, Euskadi, Polti eta Gewiseko partaideak

izango dira besteak beste.

### EUSKADI

Asier Guenetxea  
Igor Gonzalez de Galdeano  
Alvaro Glz. de Galdeano  
Iñigo Gonzalez de Heredia  
Unai Etxeberria

### ONCE

Alberto Leanizbarrutia  
Aitor Garmendia  
Ricardo Otxoa  
David Cañada

### MAPEI

Fede Etxabe  
Arsenio Gonzalez

### BANESTO

Jose Luis Arrieta

### POLTI

Iñigo Chaurreau

### GEWIS

Jon Odriozola

### AFIZIONATUAK

Josemi Elizburu - Iberdrola  
Jon Aperribai - ATE  
Sergio Frutos - ATE  
Jon Azkorra - ATE  
Oscar Askasibar - ATE  
Iker Flores - Caja Rural  
Ruben Lopez de Munain - Caja Rural

## Saskibaloia

Urbina Maltzagak Mallorka taldea izango du aurrean zapatuan arratsaldeko 8etan Mallorkako kiroldegian. German Mongeren mutilak lehen garaipenaren bila kantxaratu beharko dira nahiz eta erronka ez izan batere samurra. Partidu horretarako Moises Michael atzerritarra ezik gaitzetzekoak jokatzeko gertu izango dira.

## Pilota

Taldearen arteko Gipuzkoako txapelketako neurketak jokatu dituzte Arrasateko pilotariek zapatuan goizeko 11etatik aurrera Iturripen.

## Atletismoa

Donostiako maratonia burutuko da domekan. Arrasateko izango du ordezkari-tzarik eta erne ibili beharko dugu Cesar Diez korrikalariak egiten duenarekin; berak du eta, Arrasateko marka onena maratonia.

## Herensugeak eta Cisnero Garagartzan

Arrasateko herensugeak baterano taldeak denboraldiko lehen neurketa jokatu du Madrilgo Cisneros taldearen kontra zapatuan. Partidua arratsaldeko 5etan jokatu da Garagartzako zelaian. Beteranoak azkenaldi hone-

tan jo eta ke ari dira entrenatzen euren asmoa urtean zehar hainbat partidu jokatzeko da eta. Bestalde lehen mailako taldeak Donostiako Bera Bera izango du aurrean zapatuan goizeko 11etan Anoetako zelaian. Patxi

Gorosabelek zuzentzen duen taldeak iaz lortu zuen mailaz igotzea beraz zapatuko maila berrian lehen partidua izango da. Bera Bera talde sendoa izan arren, arrasatearrak baikor eta ilusioz beteta daude.



Lumbar CDaren barrualdearen zati bat.

# Lumbar: El Desván del Macho musika taldearen lan berria

**E**l Desván del Macho musika taldea osatzen duten Francisco Izcuek, Jose Gregorio Izcuek eta Vicente Mijangosek, euren bigarren lana grabatu berri dute Shot! musika estudioan. Kompakto eran ateratu duten lanari "Lumbar" izena jarri diote eta duela egun batzuk aurkeztu zuten Gasteizko "Zuloa" disko dendan.

Grabaketarekin oso gustora geratu direla esaten du taldeko kantari eta gitarrak, Jose Gregoriok. Denbora asko pasa dute estudioan sartuta eta egia esan, lana grabatzen eman duten ordu kopurua zehazten ez luketela jakingo esaten du. "Lumbar" disko esperimental dela esaten du Josek eta hain zuzen ere, esperimentazio hori izan ei da grabaketa luzatu arazi duen arrazoia.

"Lumbar" kompakto berria 14 kantuz osatuta dago eta taldeak betiko hari banguardistari jarraitzen diola esan daiteke. Diskoaren izenburuek ere, asko esaten dute taldeak

jorratzen dituen gaiak buruz: *Adrienne, Hormonal, acuática y yo, Pierdo el control, Microcosmos, Desde el colector, Náusea, Desesperación, Sucia-precisión de cámara de gas, Nueva Marina, Es blanco, Desagüe (El encanto de los fregaderos), Amor antrobestial, Bromuro* eta *Ella se encuentra en estado Alfa*.

## Zazpi urte musika munduan

*El Desván del Macho* 1989. urtean sortu zen, *Jugos de Otros* eta *Cancer Moon* taldeen banaketaren ostean. Vicente Mijangos, bateria, *Saz de Bolo* taldean egondakoa zen eta Jose, ahotsa, *Matrona Impúdica* taldean.

Taldekideen batz besteko

adina 30 urtekoa da eta euren hasierako urteetako eraginaren artean, *Strangers, Lords of the Church* eta *713avo Amor* taldeenak aipatu daitezke.

Euren letrak oso eraginkorrak dira baina arrasatear hauek zera diote: Katarsis pertsonal moduan erabiltzeko moduko letrak egiten ditugu. Era berean, irakurlearengan edo entzulearengan interpretazio berriak sortzeko egiten ditugu letrak.

Euren lehen lana *Hermana Violenta* izeneko diskoa izan zen baina ez zuen arrakasta handirik izan, Josek esaten duenez, banatzaileak ez zuen jakin nola saldu. Oraingoa berriz *Madrilgo Alehop* disketxearekin ateratu dute.

Bigarren lan honen eta lehenengoaren arteko desberdintasunak aipatzerakoan berriz, zera esaten du Josek. "Bi diskoen arteko desberdintasuna bakoitzak zuen intentzioan datza, eta ez bakoitzaren estiloan. Akaso, gure lan berriak rockaren antz handiagoa dauka eta *Hermana Violencia* esperimentalaren antza. Hala ere, *Lumbar* diskak esperimentazio gehiago behar izan du, baina hori, entzuleek erabaki eta ikusiko dute. Bestalde, estudioen aldetik aldakuntza dago bilanean artean, ez ditugu leku berean grabatu eta".

Joseri Arrasaten kontzertu gutxi ematen dituztela esatean, herrian baldintza oneko lokalik ez dagoela erantzuten du: "Arrasaten kontzertu bat ematea ez da erraza. Horretarako asmoa izaten badugu edo horretarako deitzen badigute, lokalaren baldintza txarretara egokitu behar izaten gara eta hori ez da erraza izaten. Arazo hau Arrasateko talde guztiek daukate".

**"Bi diskoen arteko desberdintasuna bakoitzak zuen intentzioan datza, eta ez bakoitzaren estiloan. Akaso gure lan berriak rockaren antz handiagoa dauka"**

Urriaren  
31tik aurrera  
argiago ikusiko  
dituzu  
gauzak.

# Zine-kluba: zinemazaleen osteguneroko zita Amaia antzokian

Tesis pelikularekin hasiera eman zitzaion atzo aurten-go denboraldiko Zine Klub zikloari. Urrian hasi eta datorren urteko ekainera bitartean beraz, udaleko kultura sailak programatutako filmeak ikusteko aukera izango da ostegunero 9.30etan Amaia antzokian.

Zine Kluba abian jarri zenetik oso harrera ona izan du arrasatearren artean. Ziklo honek ohiko pelikula zerrenda komertzialetik kanpo dauden filmeak ikusteko aukera ematen du eta gainera, herrian gai konkretu bati buruzko ihardunaldi edota egitarau bereziak antolatzen direnean, zine klubak tematika horretako filme bereziak eskaintzen ditu.

## Publiko fidela

Jon Garaik, udaletxeko kultura teknikariak dioenez, zine-klubak publiko fidel eta finkoa lortu du, nahiz eta horrek ez duen esan nahi pelikula zehatzen arabera ikusle-goaldatzen ez denik. Argi dago, pelikula batzuk normala baino askoz ere jende gehia-



Hurrengo ostegunean *Maneken Pis* filme belgiarra botako da Amaian.

go erakartzen dutela, adibidez, iazko *Sexo Oral*, *Extasis* edo *Justino: Un asesino de la ter-*

*cera edad* filmek.

Hala ere, 150 zenbakian finkatu daiteke gutxi gorabe-

hera ostegunero Amaia Antzokira joaten den jende kopurua. Jon Garaik balorazio ona egiten du kopuru horren gainean eta gainera finko samarra dela dio.

Kultura teknikariak azaltzen duenez, Zine-kluba ez du gainontzeko zineen kompetentzia izan nahi, eskaintza paralelo bat baizik. Horretarako beste zineek eskaintzen ez dituzten izenburuak ekarri, edo arrakasta handia izan zuten pelikulak berriz ere ikusteko aukera ematen du Zine-Klubak. Dena dela, kalitatea ei da zine programazioa egiten duten lagunen irizpide nagusia.

Momentuz azarora bitarteko egitaraua zehaztu eta abenduan Zine-Klubik egongo ez dela aurreratu du Udalak. Horren arrazoia abenduan herrian pilotzen diren ospakizunek sortzen duten parentesia da, Mundu mailako akordeoi txapelketa eta Santamas jaiak hain zuzen ere.

Zine-Klubeko prezioa berriz, iazkoa da: Sarrerak 400 ptatan salduko dira eta Gazte Txartelarekin 350ean.

## Urria-azaroko filmek

Urriak 17: *Ed Wood*

Urriak 24: *Maneken Pis*

Urriak 31: Eremu Urriko Hizkuntzen

Zinemaldiko luzemetraia afrikarra eta bi laburmetrai

Azaroak 7: *Vidas Cruzadas*

Azaroak 14: *El alcalde, el arbol y la mediateca*

Azaroak 21: *La hija del puma*

Azaroak 28: *Malena es un nombre de tango*



DANKA  
multimedia

Komunikazioan kontzeptu Berria



CD-ROM



INTERNET

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena

"Enpresan Multimedia  
Aplikatzeko, oinarrizko Gida"  
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!

Loramendi, 4 - SAIOLAN Zentruan -  
20.500 ARRASATE - Gipuzkoa -  
Tels.: 943 - 770500 / 790211  
Fax.: 943 - 795701  
Web: www.danka.es  
e - mail: danka@danka.es

### Gure bezeroak:

DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,  
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...

DANKA multimedia INTERNET-ean dago ( www.danka.es ). Eta zure enpresa ?

# Ikastaro Gazteak

## ✦ Euskal Dantzak

15 urtetik gorakoei zuzenduta

Iraupena: urriaren 18tik abenduaren 13ra

Ikastaro egunak: ostiraletan

Ordutegia: 7etatik 8.30etara

Matrikula: 1.000 pta.



## ✦ Txalaparta


Iraupena: urriaren 26tik martxoaren 8ra

Ikastaro egunak: larunbat goizetan

Ordutegia: bi txanda 1) 10etatik 11.15etara

2) 11.15etatik 12.30etara

Matrikula: 2.000 pta.



## ✦ Dantza karibearrak


Dantzak: salsa, merengue, bachata

Iraupena: azaroaren 11tik abenduaren 11ra

Ikastaro egunak: astelehen eta asteazkenetan

Ordutegia: 7.30etatik 8.30etara

Matrikula: 4.000 pta./2.500 ikasle eta langabetuentzat



## ✦ Argazkigintza

a) Hastapen maila

Iraupena: azaroaren 12tik abenduaren 12ra

Ikastaro egunak: astearte eta ostegunetan

Ordutegia: 7etatik 9etara

Matrikula: 3.000 pta./1.500 ikasle eta langabetuentzat

b) Sakontze mailako ikastaroa

Iraupena: urtarriletik otsailera

Ikastaro egunak eta ordutegia finkatu gabe

Matrikula: 4.000 pta./1.500 ikasle eta langabetuentzat

Izen emateak:  
GAZTE BULEGOAN  
(Tfnoa: 77 00 65)  
Plaza mugatuak!



ARRASATEKO UDALA

Gazteria Saila ■  
■  
■



Idizkari honetako beste orrialde batzutan baduzue nahi beste informazio Udalaizteko gurutzearen inauguraketari buruz, zapatu honetan 25 urte betetzen dira eta inauguraketa gertatu zela. Beraz, ondorengo lerroetan ez duzue xehetasun gehiago ezagutzeko aukerarik izango, bai baina Udalaiztezen orain 25 urte bildu ziren aurpegiatariko batzuk ikusteko aukera. Jakina da On Jose Luis

Iñarra parrokoak bedein-katu zuela hainbeste izerdi kostatako Udalaizteko gurutzeara, eta ohi zenez meza ere eman zuen tontor tontorrean. Jendetza izugarria bildu zen egun hartan Arrasateko parrokoaren eta gurutzearen inguruan, argazkian horietako batzuk: ezkerrean, bastoia eskuan duela **Jose Markaide**, bere alboan **Fertxu Aranburu**. Ondoren, zira jantzita, **Jabier Bergaretxe**;

eskumetara, eskuetan paper bat duena eta parrokoaren eskuaz erdi-estalita, **Nikolas Agirre**. Argazkiaren erdi-erdian **Jose Luis Iñarra** parrokoa, bere eskumetara dagoen gizona, mutil koxkorren artean, **Juanito Unzueta**. Argazkiaren atzealdean, gurutzearen aurre aurrean hiru gizon-zeko: ezkerrekoa, **Jose Luis Gonzalez**, erdikoa **Emilio Garro**, eta esku-man **Miguel Alberdi**.

**HITZALDIA: Elikadura Euskal Herrian. Ondo jaten dugu? Zer egin dezakegu hobeto jateko?**

HIZLARIA: **Alberto Iturbe (Sendagilea)**

**Maiatzak 16 (asteazkena), arratsaldeko 6etan • AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4 behe)**

ANTOLATZAILEA:



Laguntzaileak:




ARRASATEKO UDALA



EMAKUNDE

# Z E R N A H I A G O ?

## Ana Peñalba "Comercial Arpe"koa



- Inoiz egin duzu permanenterik? Bai, behin egin nuen.
- Tintatuko zenuke ilea kolore bizi batekin? Bai.
- Asko saltzen dira tinte urdin, orlegi eta moreak? Bai.
- Arrasatearrek zaintzen dute ilea? Bai.
- Zenbatero garbitu behar da ilea? Produktu onak erabiliz gero egunero garbitzea ez da txarra.
- Inoiz bururatu zaizu pelukera izatea? Ez, ez litzaidake gustatuko.
- Inori moztu diozu ilea? Ez.
- Polita dago Carolina de Monaco ile barik? Bai.
- Infusiorik hartzen duzu? Ez, kafea besterik ez.
- Lora bat? Larrosa zuria.
- Baduzu animaliarik etxean? Ez.
- Zer izan nahi zenuen txikitan? Erizaina.
- Zein liburu ari zara irakurtzen orain? Rosa Chacel-en bat baina ez dut izenburua gogoratzten.
- Gozozalea zara? Bai, oso.
- Astezken eta ostiraletan azokara joaten zara? Ez, ez daukat astirik.
- Nora egingo zenuke bidaia? Kanadara.
- Zer falta zaio Arrasateri? Ez dakit, ni plaentxiarra naiz.
- Eta Soraluzeri? Kultur ekintza gehiago.
- Kirolari bat? Ben Jhonson.
- Zer oparituko zenioke gizon bati? Disko bat.
- Ezer kolekzionatzen duzu? Ez.
- Bertsolari bat? Andoni Egaña.
- Irrati emisora bat? Radio 3.
- Fruta bat? Laranja.

## LABURRAK

### Keramika ikastaroa

Leintz Keramika Eskolak keramika ikastaroa antolatu du urriaren 14tik aurrera. Ikastaroak 50 orduko iraupena izango du eta astelehen, astearte eta ostegunetan burutuko da arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara. Matrikula egiteko 19 87 95 telefonora deitu behar da. Prezioa 3.500 pezetakoa da.

### Euskal Kanten ikastaroa

Urriaren 15ean Ekin emakume taldeak antolatu duen Euskal Kanten ikastaroa hasiko da arratsaldeko 6etan. Karmelo Herizek emango ditu eskolak. Ikastaroaren helburua euskal kantu ezagunenak giro jator eta umoretsuak ikasi eta abestea da. Matrikula epea zabalik dago oraindik. Izenematea AED-ko lekalean edo 771228 telefonora deituta egin daiteke.



Lehen



Orain

## Gorputza moldea daiteke!

Gaur egun, **Ramon Aginaga** Doktoreak, Zirujia Estetika Elkarteko partaideak **Miren Garairen** Zentruan egiten duen **Lipoeskulturak** emaitza harrigarriak lortzen ditu.

### Erabiltzen diren beste teknika batzuk:

- Tripa erabat kentzea
- Bularrak txikitu edo handitzea
- Begietako poltsak kentzea
- Loditasuna eta barizeak

**Miren Garairen Estetika Zentrua • 79 96 90**

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2 ezk.

Ebakuntzak Gasteizko Esperantza eritetxean egiten dira.

• ESAERA •

“Dakitenek ez dute hitz egiten. Hitz egiten dutenek ez dakite. Jakitunak bere ekintzekin erakusten du eta ez hitzekin”


CHUANG TSE

• JEROGLIFIKOA •

Asko,  
mucho,  
beaucoup

Irakurtzen al duzu?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRA

**Horizontalak** 1. EKINeko lehendakariaren izena. 6. Galioa. 8. Umea denaren nola-kotasuna. 10. Itsasuntziaren egituraren ardatza. 11. Garo, iratze. 12. Goibelaldi. 14. Alfabetoko hamaikagarren letraren izena. 15. (Ald.) Begirada. 16. Iparretarrak. 17. Ote eta antzeko sas-trakaz eratua. 20. Bibliaren arabera Booz-en emaztea. 21. Neurtu aditzaren infinitiboa.

**Bertikalak** 1. Erraz mugitzen dena. 2. Norbaiten itxurak egin. 3. (Ald.) Ulertu aditzaren infinitiboa. 4. Alkohol etilikoa. 5. Nafarroako ibilgailuetan. 6. Arga. 7. Anaitasunezko. 9. Minhoren adarra. 13. Ukituz gero, hazkura ematen duen landarea. 18. Kanpo. 19. Musika eskalako bigarren nota.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Astakeria handiak esan eta handiagoak egiten dituzu.

**Taurus** Zuretako ez dago ordurik? Erlojua ipini mesedez.

**Gemini** Itxura hobea edukiko zenuke barruko arropa noizean behin aldatuta.

**Cancer** Astebukaeratan askotxo hitz egiten duzu baina astelehenetan....

**Leo** Gauzak esan bai, baina esandakoa egin?

**Virgo** Beldurrezko filme batean protagonista ezin hobea izango zinateke.

**Libra** Ingurukoak nekatzen dituzu zure mugimendu horrekin.

**Scorpio** Gehiago jan edo tiranteak erosi. Zeuk aukeratu.

**Sagitaris** Albistegietan bezala zure albiste txarrak baino ez dituzu.

**Capricorn** Ispiluaren aurrean jarri eta zer ikusten duzu?

**Aquarius** Diru arazoak direla medio, ezingo zara kalera irten.

**Piscis** Gaur ez duzu oso ondo pasatuko eta bihar, berriz, oso gaizki.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: **CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



# Lau ezkontza, bi bazkari eta moda desfilea Nonzeberri programa berrian

**S**aio berri honetako lehen programa ezkontzez beteta datorrigu. Lau bikote arrasatearren ezkontzak ikusi ahal izango dira asteazkeneko Nonzeberri saioan: Joxe Elortza eta Dorleta Agi-

rriano, Ricardo Lopez Rekar-te eta Ana Santana, Ainhoa Jausoro eta Jesus Santacristina eta beste bikote arrasatear batenak. Horrez gain 82 urte bete duten kintoen bazkaria eta ostegunero babajana egiten duen lagun tal-

deari egindako erreportaia ere ikusgai. Moda kontuak ere ez dira faltan izango: bihar Bergaran egingo den moda desfilea iruditzen izango da Nonzeberri, asteazkenean 9.30etan eta ostegunetan 13.35etan.

# Jon Sagasta futbolari ohia Mondrasporten

**D**atorren astelehenean Mondrasport kirol saioan Jon Sagasta futbolari ohia ezagutzeko aukera emango digute Itxaro Zubillaga eta Esti Loitik. Erreportai polita prestatu dute orain dela 19 urte futboleko jokatzeari utzi zion gizon honen inguruan. Jon Sagastak Realean jokatu zuen baina baita Osasuna, Leonesa, Logroñes, Real Union eta Mondra futbol taldeetan ere.

Jon Sagastaren erreportaiatz gain, asteburuko kirol neurketek eman dutenaren berri ere jaso ahal izango duzue Mondrasporten, eta gainera, Mondra futbol taldeko jokalaririk bat platoon egongo da Itxaro eta Estirekin.



## • ARRASATE IRRATIA (FM 107,7) •

**Nobedade handirik ez da izango aste honetako programazioan, ohiko programak entzungai, goizez eguneroko albisteak eta Goizoro magazina. Gaez, berriz, 9etik aurrera, honako pro-**

**grama hauek: Astelehenean Caravanserai musika programa, asteazkenean KK2A, ostegunetan Txerrendantza eta Adi Egon, eta ostiraletan KGB. Astearteko tartea oraindik ez da bete.**

## • SOLUZIOAK •

**Horizontalek:** 1. Miren, 6. Ga. 8. Umetsun, 10. Gila, 11. Ira, 12. Itualar, 14. Ka, 15. (Ald.) So, 16. IK. naldi, 17. Oialar, 20. Rur, 21. Neur.  
**Bertikalak:** 1. Mugikort, 2. Imila-tu, 3. (Ald.) Uler, 4. Eranol, 5. Na, 6. Gurd, 7. Anai, 9. SII, 13. Asun, 18. Ar, 19. Re.  
**Jeroglifikoa:** Askok euskaraz eta erdaraz.

## PROGRAMAZIOA



### 11 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Astebete**

**Gaiak:** Udalaitzeko gurutzearen 25. urteurrena eta Euskalan talde berria

### 14 Astelehena

13.30etan

**Albiste aurrerapena**

13.35etan

**Astebete errep.**

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Mondrasport**

**Erreportaiak:** Jon Sagasta futbolari ohia

### 15 Asteartea

13.30etan

**Albiste aurrerapena**

13.35etan

**Mondrasport errep.**

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Lotsa Barik**

**Gonbidatuak:** Beñardo Kortabarria eta Nerea Zubiete kazetariak

### 16 Asteazkena

13.30etan

**Albiste aurrerapena**

13.35etan

**Lotsa Barik errep.**

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Nonzeberri**

### 17 Osteguna

13.30etan

**Albiste aurrerapena**

13.35etan

**Nonzeberri errep.**

19.10etan

**Kukaratxa Motel**

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Kukaratxa Motel**

### 18 Ostirala

13.30etan

**Albiste aurrerapena**

13.35etan

**Kukaratxa Motel errep.**

20.00, 20.30 eta 21.00etan

**Berriak**

21.30etan

**Astebete**

**Etxebizitzak**

- **Lagun bat behar da** Donostiako Alde Zaharreko pisu bat osatzeko. Tfnoa: 71 45 52.
- **Donostian pisua osatzeko** neska bat behar da. Tfnoak: 79 33 30 edo 79 98 37.
- **Biltegi bezala** erabiltzeko lokala alokatzen da. Tfnoa: 79 20 48.
- **Pisua alokagai San Andresen.** Tfnoa: 79 37 97. Dei egin 1etatik 3etara edo 9etatik 11etara.
- **Lagun bat behar dugu** Deustun pisua osatzeko. Tfnoak: 79 47 15 edo 79 82 91.
- **Pisu bila nabil**, bi seme-alabaz osatutako familia batendako. Tfnoa: 79 42 05.
- **Erdialdean garage itxia** alokatzen da. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 42 13.
- **Donostiako Amara Zaharrea** pisua osatzeko neska bat behar da. Tfnoa: 79 82 47. Amaia.
- **Jendea behar da** Leioako Unibertsitateko oinez zazpi minutura dagoen txalet baten logela merke bat hartzeko. Tfnoa: 78 31 10.
- **Iruñian pisua osatzeko** pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Arrasaten edo inguruan** jantzita dagoen pisu bat alokatu nahi dut. Tfnoa: 79 57 64. Sandra.
- **Donostiako Antiguoa** auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Tfnoa: 77 00 29 (Josefa) edo 76 44 82 (Jon).
- **Esperientziadun klinika laguntzaileak** umeak edo helduak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 09. Amaia.
- **Lokala alokatzen da.** 70 m<sup>2</sup>. Ura eta argiaz. Tfnoa: 79 76 95.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da** San Andres auzoko Errebuelta kalean. Tfnoa: 86 07 86. Alaitz.

**Lana**

- **Lau urteko esperientzia duen mutila** gertu kamarrero lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 40. Aitor.
- **Bulegoak eta etxeak** garbituko nituzke. Dei egin goizez 79 59 75 edo arratsaldez 79 11 14 tfnora.
- **Esperientziadun emakumea gertu** etxeetan lan egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 33 77.
- **OHOko klase partikularrak emango** nituzke. Tfnoa: 79 21 64.
- **OHO-REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 06 39.
- **Esperientziadun irakasleak** OHO eta ingelesko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Agurtzane.
- **Euskal Filologiako ikasleak** euskarazko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 94 49. Oskar.
- **Mikrobiologoa behar dugu** ura garbitzeko proiektu ekologiko baten laguntzeko. Tfnoa: 78 07 82. Steve.
- **Neska prest umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 67 30.
- **8. mailako eskolak ematen dituen** pertsona bat behar da klase partikularrak emateko. Tfnoa: 79 98 28.
- **Esperientziadun neska lizentziatuak** klase partikularrak emango lituzke. OHO, BBB eta BUP. Tfnoa: 79 48 83.
- **Neska euskaldunak** astegunetan gauetz taberna lan egingo luke. Tfnoa: 79 10 57.
- **Magisteritza daukan neska batek** OHOko klase partikularrak emango lituzke. Euskaraz edo erdaraz. Tfnoa: 77 10 21.
- **OHO, REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 12 91. Alaitz.

• **FP2 elektronikako klase partikularrak** hartuko nituzke. Dei egin 16.00etatik aurrera. Tfnoa: 76 16 32.

• **Klase partikularrak** ematen ditut Musakolan. Tfnoa: 79 35 24.

• **Umeak zaintzeko** eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: (907) 74 21 00.

**Salerosketak**

• **BX-GT gorria salgai**, BI-AK. 150.000 pta. Tfnoa: 79 42 65. Andoni edo Konsuelo.

• **Seat Ronda SS-V salgai**. 75 zaldikoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 15 96.

• **Sonola akordeoia salgai**. 120 baxu, boiekin eta ia berria. Tfnoa: 78 14 72.

**Denetarik**

• **Alkateak ostiralean Abaroa parean** Festina markako erlojua, naruzko korreaz, betaurrekoak, boligrafoa eta Askatasuna galdu zituen. Hasierako hirurak aurkitzen duenak dei dezala 79 09 00 tfnora. Askatasuna...

• **Egunero Gasteiza doan autobusa** osatzeko jendea behar da. Irteera 2.30etan eta 20.00 buelta. Tfnoa: 79 32 58 Amaia.

• **Aurreko larunbat gauean** zilarrezko pultsera (hostoekin) galdu nuen. Tfnoa: 79 40 79 edo AEDra eraman.

• **Maritxu Kajoi gauean** Larrigain eta Etxezpia kale tartean emakumezko eskularru batzuk galdu nituen. Naruzkoak eta beltzak. Aurkitu badituzu dei egin mesez 79 83 63. Marian.

• **Lau lagun behar dira futbitoko taldea** osatzeko. Ostegun arratsaldetan jolasteko Kiroldegian. Dei egin gaueko 8etatik 9etara 79 93 86 tfnora.

**Aste Gazte**

**Bekak**

• Ikerkuntza eta Garapen Teknologikoarekin loturiko beka, zerbait alorretan ikerketak egiteko. Industri Injeneriari edo beste goi mailako ikasketak dutenei zuzenduak. Epea: urriak.

**Lana**

• Bilboko Udalak Musika Bandako irakasleak behar ditu, klarinete eta perkusio espezialitatekoak. Epea: urriak 20.  
• Itsasondo eta Balmasedako Udalek administrari lagun-

tzaille bana behar dute. Epea: urriak 6.

**Ikastaroak**

• Txalaparta: urritik martxora, larunbat goizetan, 2 txanda: 10-11.15, 11.15-12.30. Matrikula: 2.000 pta.  
• Argazkigintza: A) hastapen maila: azarotik abendura, astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara. Matrikula: 3.000 pta. eta 1.500 pta. ikasle eta langabetuendako. B) Sakontze maila: urtariletik otsailera. Plaza mugatuak.

• Euskal dantzak. Hasiera urriaren 18an.

• Dantza karibearrak: azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Astelehen eta asteazkenean.

**Nekazaritza ikastaroak**

• Fraisoro Nekazaritza Eskolak 2. seihilebeteko ikastaroen eskaintza kaleratu du. Interesatuak Gazte Bulegoan duté informazio gehiago.

**Lehiaketak**

• Euskadi Gaztea VI: make-ta lehiaketa. Epea: urriak 31.  
• Donostia Hiria Literatur Saria. Epea: urriak 31.

**"Nerabezaroa minik gabe pasatzen duena inoiz ez da bilakatuko benetan pertsona heldu"**

**SUSANA TAMARO**  
**"VA DOVE TI PORTA IL CUORE"**

**Informazio gehiago:**  
**GAZTE**  
**ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**

GR\PO

RK\UZ



## altzariak

altzariak • diseinua • apainketa

Araba Etorbidea, 20  
Tfnoa. / Faxe: 79 23 51

## sukalde integrala

- Ordenagailuz egindako proiektuak
  - Liderrak muntaian
- Betiko muntaiak




Mitarte, 3  
Tfnoa. / Faxe: 77 04 55



## elektragailuak

telebista • bideoa • soinua



**expert** 

banatzaile ofiziala

Asuncion, 1 Tfnoa. / Faxe: 77 10 97

# *Aretxabaleta*

Nabarmenzen da.



Megane Classic berria.



**MECA**

